25 anboto
LEKUAN LEKUKO

ARROPA
DENDA ZABALIK
AZAROAREN 3tik 17ra
labur.eus/anboto

MUSIKA

Peiremans+ taldeak bideoklip bat filmatu du Durangoko Palentinoan

Euskal Herriko sortzaile ugarik parte hartu du bertan. Urriaren 19an filmatu eta asteon estreinatu dute / 16



Imanol Ubeda eta Gorka Urbizu Peiremans+ taldeko kideak.



"Herritarrek sinetsi egiten dute ANBOTO lako proiektuetan: horixe da aberastasunik handiena"

ANBOTOk 25 urte egingo ditu astelehenean, azaroak 9. Ospakizunaren atarian, Jone Guenetxea egungo zuzendaria Idurre Maortuagaz batu da, komunikabideko hasierako kudeatzaileagaz, iraganaz, orainaz eta etorkizunaz berba egiteko. / 2-3

GREBA

Greba orokorra, etxebizitzaren auzia "jasanezina" dela salatzeko eta neurriak hartzea eskatzeko / 10



ISUNAK

Txakurrak solte eramateagaitik isunak ipintzen dabiltza Urkiolako Parke Naturalean / 6



PILOTA

Azaroaren 12an zuzeneko emankizunak egiten hasiko dira Zaldibarko Olazar txapelketan / 21

ELKARTASUNA

Elorrion Palestinaren aldeko diru bilketa egingo dute zapatuan, mendi bizikletako martxa biren bitartez / 8



"ANBOTOren sorreran konbentzimendu handiagaz lan egin genuen"

IDURRE MAORTUA AIARZAGUENA ANBOTOREN LEHENENGO KUDEATZAILEA

Maortua gidari zela, ANBOTOk Santa Anako bulegoan eman zituen lehenengo pausoak. Sasoi hartako lantaldearen eta kolaboratzaileen ilusioa azpimarratu du



Idurre Maortua ANBOTOren bulegoan Jone Guenetxea gaur egungo kudeatzaileagaz.

Jone Guenetxea DURANGALDEA

ANBOTOk 25 urte egin ditu aurten eta ekitaldia antolatu du mende erdiko ibilbidea ospatzeko. Azaroaren 9an izango da, Plateruenean. Egun horretan, baina orain 25 urte hain zuzen ere, kaleratu zen ANBOTOren lehenengo alea. Sasoi hartan, Idurre Maortua kudeatzaileak hartu zuen proiektuaren gidaritza. Unibertsitatetik irten berri, bere lehenengo lana izan zen; baita eskola handia ere.

25 urteko ibilbidean pertsona garrantzitsua izan zara. Zelan gogoratzen duzu sorrerako sasoia? Lan itzela egin zenuten egitasmoa herririk herri aurkezten.

ANBOTOren egitasmoa herririk herri ofizialki aurkeztu genuen. Ilusio handiko garaia izan zen, proiektu inportante bat aurkeztera gindoazlea sinistuta geunden. Konbentzimendu handiagaz lan egin genuen.

Zelan aurkeztu zenuten proiektua jendaurrean?

Herrietako aurkezpenetan egitasmoak oso harrera ona izan zuen. Udaletara ere joan ginen proiektua aurkeztera. Kasu honetan gehiago kostatu zitzaigun gure konbentzimendu hori administraziora zabaltzea. Batzuetan, administrazioak berak sortu ez dituen proiektuak sostengatzeko urratsak ematea kostatu egiten da. Era berean, zer dago herritarragorik edo publikoagorik herritik bertatik sortutako ANBOTO lako egitasmo bat baino! Zorionez, urteetako lanari eskerrak gaindituta dago, eta orain inortxok ere ez du zalantzan ipintzen proiektua. Hala ere, hasieran lan handia egin behar izan genuen udaletan, Aldundian eta Jaurlaritzan bere zilegitasuna eta beharrizana aldarrikatzeko.

ANBOTO ezaguna izan arren, agian gazteenek ez dute jakingo zelan sortu zen. Gure aurrekaria ERAZ aldizkaria izan zen.

Zalantzarik barik ERAZ ezinbestekoa izan zen ANBOTOren sorrerarako. Ildo horretatik, Izaskun Ellakuriaga kazetariak aipamen berezia merezi du. Sasoi hartan, Arrasate inguruko proiektua erreferente zen guretzat, gaur egungo Goiena. Publiko zabalago batera heltzea zen helburua, formatua aldatzea eta doako harpidetzara pasatzea. Alde horretatik, luxuzko lankide bat izan genuen, Xabier Amuriza.

Sasoi hartan ez zen erraza izango zein euskara eredu landuko zen erabakitzea. Xabierrek argi zuen testuinguru hartan inor ere ezin zela atzean geratu.

Bagenekien aldizkariak euskara batua eskatzen zuela, baina kontziente ginen irakurle askok ez zeukatela ohitura euskaraz irakurtzeko. Amurizak ahalegin handia egin zuen Durangaldeko berbakera kontuan hartzeko.

Profesionalizaziorako hautua egin zen, kolaboratzaileak aintzat hartuta.

Horrelako proiektu herritarrek duten aberastasunik handiena horixe da, hain zuzen ere: jendeak sinistu egiten duelako parte hartzen du proiektu horretan. Bere sentitzen duenez, bakoitza prest egoten da bere aletxoa ipintzeko. Horregaitik dira proiektu hauek hain beharrezkoak. Baina, denboran irauteko, garrantzitsua da bideragarriak izatea. Bertan lanean dabiltzanek lan baldintza duinak izatea ere garrantzitsua da.

> **"Santa Anakoak bere xarma zuen, baina bulego berriak beste baldintza batzuk zituen"**

> **"Horixe da gure aberastasunik handiena: proiektuan sinistu egiten dugu"**

Behin kudeatzaile lana utzita, zuzendaritzan jarraitu zenuen, militante legez.

Bakoitzak ahal duena egin behar du, eta proiektuetan ekarpena egin. Horrela sortu da euskalgintzan dugun hainbat egitura. Sinisten dut horrela izatea inportantea dela, eta ez proiektuagaitik bakarrik, norberarentzat aberasgarria delako ere bai. Espero dut hurrengo belaunaldietako gazteek ere gurpil horri eutsiko diotela.

Bulego aldaketa egin genuen 2010eko urtarrilean. Santa Anako bulegotik Iurretako Bixente Kapanagara lekualdatu ginen. Sasoi hartan kudeatzaile legez ez, baina zuzendaritzan zenbiltzan.

Bai, beste hainbat lagunegaz, Jasone Agirregaz eta beste kide batzuekin. Bulego aldaketa beharrezkoa zen. Santa Anakoak bere xarma zuen, baina oso zaharkituta zegoen, beti borrokan ibiltzen gienen hango fusibleekin, hotz egiten zuen... Bulego berriak beste baldintza batzuk eskaintzen ditu behar egiteko.

Beste aldaketa garrantzitsu bat elkarte izatetik kooperatiba izateko jausia izan zen.

Egitura juridikoak elkartearen egitekoei erantzun behar die, eta kooperatiba parte hartzea bultzatzen duen egitura bat da, hainbat figura aurreikusten du. Alde horretatik, egokia da ANBOTOren moduko egitura parte hartzaile batentzat.

Kazetaritzaren ikuspuntutik, zelan baloratzen duzu ibilbidea? 25 urtean mundua aldatu egin da eta edukiak kontsumitzeko moduak ere bai.

ANBOTO erreferentziazko hedabide bat da, zalantzarik barik,

eta hori 25 urtean egindako lanari eskerrak izan da, kazetaritza ikuspuntutik egindako lanagaitik eta baita kolaboratzaileen lanari eskerrak ere. Astero kolaboratzaileen iritzia irakurtzea gustagarria da. Erreferentziazkoa da norbaitek ekimenen bat antolatzerakoan ANBOTOra jotzeko ohitura duela nabaritzen delako. Bizi ditugun garai zoro hauetan irakurketa patxadaz egiteko aukera ematen du. Erronka izango da belaunaldi berriak gerturatzea, sare sozialetan gehiago daudenak.

Paperetik gatoz, webgunea sortu genuen, eta horren ondoren sare sozialak sortu ziren; beraz, audientziaren kontsumo ohiturak aldatu egin dira. Gazteengana heltzea erronka handia da. Irakurle askok papereko patxada hori eskertzen du, baina beste erritmo bat ere badaukagu: azken ordukoa idaztearena eta sare sozialak elikatzearena; klik arrantza eta azkartasuna, azken batean. Mundu bi horien artean gaude.

Pentsatu gura dut desinformazioan oinarritutako sareetako eduki arin horien atzean zer dagoen jabetuko direla. Hori erronka garrantzitsua da. Bestalde, gure herria aldatu egin da, beste lurralde batzuetako pertsonak etorri dira, eta ANBOTO lako proiektuak eurenak ere badirela erakustea beste erronka bat da.

Guk ere hausnarketa hori egin dugu eta laster proiektu berri bat martxan ipiniko dugu. Baina ez dut larregi aurreratu gura. Bestalde, desinformazioa aipatu duzu. Horren aurrean, hedabide batek izan dezakeen altxorrik handiena sinesgarritasuna da. Gertukotasunak lagundu egiten du horretan. Txanponaren beste aldea ere hortxe dago. Gure komunitateak atea jotzen digu, bulegora etortzen da. Gertutasuna elkar zaintza legez bizi dugu. Komunitateko eragile bat gehiago gara.

Bai, gertutasuna beti izan dugu oso presente. Gogoratzen dut sorrerako urteetan Internet ez zegoela hedatuta eta herri bakoitzean informatzaileak izaten genituen, herri bakoitzean esanguratsua zen informazioa jasotzeko. Gure baliabideak mugatuak ziren eta imajinazioa behar zen leku guztietara heltzeko.

Bai, gogoratzen dut informatzaile sare bat izaten genuela; jende anitza izaten zen, gainera.

Lehia puntu bat ere izaten zen, bakoitzak ez duelako bere herria behar den beste islatuta ikusten. Oreka horiek mantentzea ez da erraza izaten, baina ahalegin hori igartzen da, herri bakoitzak bere lekua izan dezan.

Konpromisoa dugu astero herri guztietako albisteak sartzeko, batez ere herri txikien mesedetan. 25 urte daramatzagu geure buruari ezarritako arau horri eusten.

Beste arlo askotan ere kuotak aipatzen ditugu, eta kasu honetan ere herri txikien informazioa bermatzeko arau hori ipintzeak badu zentzua. Herri handi zein txiki, astero bere lekua izaten du.


Amaitzeko, Idurre, balorazio bat eskatuko nizuke.

Hasteko, zorionak anbototar guztioi, eta bereziki astero-astero lanean zabiltzaten denoi. Erronkak erronka, zorionak denoi!

> **"Zorionak anbototar guztioi, eta bereziki astero-astero lanean zabiltzaten denoi"**



Idurre Maortua Durangaldeko euskalgintzako eta instituzioetako ordezkariekin proiektuaren aurkezpenean.



Behinolako eta gaur egungo lankideak, lurretako bulego berriaren inaugurazioan.



10. urteurrenerako Plateruenean ateratako familia argazkia.







Berbaro Elkarteak urte birik behin egiten du ikerketa.

2022tik hona, euskara "ez atzera ez aurrera" dabil Durangoko jaietan, Berbaroren esanetan

2024tik hona, %5,4 igo da euskara hutsezko eskaintza, eta %7,7 gaztelaniazkoa

J.Derteano DURANGO

Berbaro Elkarteak Durangoko San Fausto jaietan antolatu diren ekintzen hizkuntza azterketa egin du aurten. 2019tik hona urte birik behin egiten duen ikerketa da. Jaietan programatutako jardueren %87 inguru neurtu eta 126 jarduera kontuan hartu ditu txostena osatzeko.

Datu orokorra kontuan hartuta, 2024tik hona euskara hutsean egindako jarduera kopurua %5,4 hazi da, baina gaztelaniazkoak oraindino gehiago egin du gora: %7,7. "Aurtengo datuak 2024koen antzekoak dira, baina gaztelaniak euskarak baino leku gehitxoago irabazi duela esan daiteke", baloratu du Berbarok.

Denbora tarte zabalago bati erreparatuta, 2019tik 2026ra, Berbaroren ustez euskara "ez atzera, ez aurrera" dabil 2022tik hona. Izan ere, 2019tik 2022ra euskarazko eskaintza %35etik %53ra igo zen, baina ordutik gorabeherak izan ditu, eta aurten %48an geratu da. Gaztelania hutsezko eskaintzak, ostera, 2022tik 2024ra galdutako portzentaje bera berreskuratu du 2026an, eta %32an dago.

Jai Batzordearen datuak

Jaietako egitaraua batzorde biren artean antolatzen dute: Jai Batzordeak eta Txosna Batzordeak. Jai Batzordeari dagokionez, euskarazko ekintzak %6 igo dira, eta "oso positiboa da hori". Era berean, erdaraz egindakoak %11 igo dira eta Berbarok uste du hori "kezkatzekoa" dela. Berbaroren iritziz, berehala hartu daitezkeen neurri batzuk daude: "Batetik, euskaraz egindako ekintzak %50etik gora egon behar dira ezinbestean, eta, bestetik, gaztelania hutsean egindako gehienak ele bitan egin daitezke".

Datu bati "oso kezkagarria" deritzote. Aurtengo bost antzerkiak (hiru antzerki eta bakarrizketa bi) gaztelaniaz izan dira. "Diziplina oso bat gaztelania hutsean eskaintzea berehala aldatu beharrekoa da", adierazi du.

Umeentzako eskaintzan euskarak lekua irabazi du: %7 igo da, eta ele bitan eta gaztelania hutsez egindakoak 3 eta 4 puntu jaitsi dira, hurrenez hurren. Hala ere, Berbarok uste du umeen "eskaintza guztia euskaraz" egin beharko litzatekeela, eta, horrenbestez, "balorazioa ez da guztiz positiboa". Umeen artean euskararen presentzia handitzeko, ekintza aurrera eramateko kontratatuko den enpresari "euskarazko begiraleak ipini ditzaten exijitzea" proposatu dute.

Txosna batzordearen datuak

Txosna Batzordeak antolaturiko jardueretan ere antzeko joera gertatu da: euskara hutsean egindako jarduerak %2 igo dira, eta erdara hutsean egindakoak %3. "Txosna Batzordeak ekarpen handia egiten jarraitzen du Durangoko jaiak euskalduntzeko, baina atzerapausoak gertatzeko arriskua ere badagoela uste dugu", baloratu dute. Esaterako, txosnetako musika eskaintzan euskarak "geroago eta presentzia txikiagoa" du. Hain zuzen ere, % 33 izan da euskaraz, eta % 39 ele bitan. Egindako neurketa guztietako urteen artean, "euskarak aurten izan du presentziarik txikiena Txosna Batzordearen musika eskaintzan".

Hala ere, txosnagunean antolatu diren umeentzako jarduerak edo beste ekitaldi eta lehiaketa guztiak euskaraz izan dira %100.


Jaietako beste gune bat barrakak dira. Barraken neurketa egiteko, egun bakoitza jarduera bakar legez zenbatu dute. Hori horrela, barraken arloan zazpi jarduera zenbatu dituzte eta emaitza argia da: denak gaztelaniaz izan dira. "Hizkuntzari dagokionez, uste dugu baldintza zehatzak ipini behar direla barrakak ipini ahal izateko, batez ere musikaren hizkuntzari dagokionez. Beste herri batzuetan egiten den moduan, barraketako musika zein izan behar den udalak ezartzea oso eraginkorra izango litzateke", gaineratu dute.

Azkenik, Berbaro prest agertu da jaien antolakuntzan murgiltzen diren batzorde, elkarte eta taldeekin elkarlana egin eta behar duten laguntza emateko.

Euskara "ez atzera ez aurrera" dabil 2022tik hona, Berbaroren ikerketaren arabera


Euskararen presentzia 2026ko sanfaustoetako ekitaldietan

Datuek Jai Batzordearen ekitaldiak, Txosna Batzordearenak eta barraketakoak batzen dituzte



ITURRIA: BERBARO ELKARTEA

2019ko, 2022ko eta 2024ko jaietako datuen konparazioa



Durangoko igerilekua abuztuan eta 07:00etan zabaltzea eskatu dute 300 sinaduragaz

Mantenu lanak eta langileen oporraldiak beste era batera antolatzeko eskatu dute

E.H./J.D. DURANGO

Landakoko kiroldegiko erabiltzaile batzuek eta durangar batzuek sinadura bilketa egin dute bertako igerilekuak 07:00etan zabaltzea eta abuztuan ere zabalik egotea eskatzeko. 300 sinadura erregistratu dituzte horretarako, eta Durangoko Udalari helarazi dizkiote, hark eskariak kontuan hartu ditzan. Egitasmoa bultzatu duten kideetariko batzuk Maria Asunción Oliveira eta Begoña Muñoz durangarrak dira. Esan dutenez, igerilekua adinekoek erabiltzen dute batez ere, askok lesioak eta mugikortasun arazoak lantzeko ariketa terapeutikoak egiten dituzte-eta bertan. Alabaina, abuztuan igeri egiteko aukera bakarra Tabirako igerilekuak direla esan dute, eta igerileku horiek aisialdirako prestatuta daudela. "Ez ditugu zalantzan ipintzen ez mantentze-lanak, ez langileen oporrak. Beste modu batera antola daitezen eskatzen dugu, faseka edo ontzi bat urez beterik utzita. Eta ezin bada, udalak zergaitik den azal diezagula", esan du Maria Asunción Oliveirak. Sinatzaileek "ez dute onartzen" herritarrak beste udalerri batzuetako igerilekuetara bideratzea: "Gehienak ez daude fisikoki lekualdatze horiek egiteko moduan", esan du Oliveirak.



Batutako sinadurak Durangoko Udalari helaraziko dizkiote.

Igerilekuak abuztuan zabalik mantentzeaz gainera, zerbitzua 07:00etan zabaltzea eskatu dute (gaur egun 07:30ean zabaltzen dituzte, eta uztailean 08:00etan). Horren harira, Begoña Muñozek lan ordutegiagaitik igerilekura joan ezin direnak eta adinekoak gogoratu ditu: "Adinekoak goiz esnatzen dira, eta badira lanagaitik etorri ezin diren bizilagunak, 07:00etan bai etorriko liratekeenak", ziurtatu du. Era berean, igerilekuak uztailean geroago zergaitik zabaltzen diren galdetu dute, "goizen argitzen duen hilea bada". Sinatzaileen esanetan, pandemia aurretik igerilekua zabalik egoten zen abuztuan, eta itxiera hamabostaldi bitan banatzen zen, bata ekainean eta bestea abuztuan. Horrez gainera, kiroldegi bereko fitness aretoa abuztuan zabalik egoten dela gogoratu dute.

Sinadurak batzen ibili direnak alkateagaz batu ziren udan, baina, esan dutenez, ez dute erantzunik jaso. Orain eskaera formala aurkeztu dute idatziz. Neurriak ezinezkoak badira, mantentze-lanak faseka egiteko azalpenak ematea eskatzen dute.

Adinekoek kafetegia eta jarduera fisikorako gelak lehenetsi dituzte

J.D. DURANGO

Durangoko Udala adineko zentro berria zehazten dabil, eta parte hartze prozesu bat egin du nagusienen iritzia batzeko. 300 adinekok eman dute iritzia, eta %94,5ek adierazi dute etorkizuneko azpiegituran kafetegia, jarduera fisikoa egiteko guneak eta tailerretarako gelak lehenetsi beharko liratekeela. Horrez gainera, ekitaldietarako aretoa, elkarteentzako espazioak eta kanpoko eremuak egotea ere proposatu dute. "Orain beste urrats bat egingo dugu proiektua idazteko, eta, horretarako, 50.000 euroko aurrekontu-partida dugu dagoeneko", esan du Jesica Ruiz zinegotziak.

Durangoko merkatuak hainbat ekintza hartuko du azaroan

J.D. DURANGO

Durangoko merkatuan hainbat ekintza egingo da azaroan zehar. Zapatu honetan, 09:00etan, Gorka Menendezek eta Blanca Del Novalek Yagi Miso proiektu berria aurkeztuko dute, Lezaman ekoitzitako babagaz eta artoagaz misoa egiteko sortu duten egitasmoa. Azaroaren 12an, 18:00etan, Arrazolako Amillena jatetxeko kideek hurbileko osagaiekin prestaturiko hainbat plater eta jaki erakutsiko dute; kalabazari arreta berezia eskainiko diote. Azaroaren 21ean, 11:30ean, Miriam Chef integratzaileak *show cooking* saioa egingo du; errezeta osasungarriak prestatuko ditu bertan.

Adimen artifizialaren bidezko indarkeria aztergai zineforumean

E.H./J.D. DURANGO

Andereak elkarteak eta Andraguneak Zine Forum Feminista antolatu dute emakumeen aurkako indarkeriari eta adimen artifizialari buruz. Jardunaldia azaroaren 14an izango da, 11:00etatik 14:00etara, Zugaza Zineman, doan. Bertan, *Another Body* dokumentala proiektatuko dute, Sophie Compton eta Reuben Hamlyn zuzendarien lana. Ikus-entzunezkoak adimen artifizialaren bitartez irudi pornografiko faltsuak sortzearen eta zabaltzearen ondorioak erakusten ditu.

Honako hau da Zugazan botako duten dokumentalaren sinopsia: unibertsitateko ikasle batek irudi pornografiko manipulatuak zabaltzen ari direla deskubritu du eta bere aurpegia ikusiko du irudi horietan. Hori dela eta, justizia bila hasiko da intimitatea, nortasuna eta duintasuna urratzen dituen erasoaren aurrean.

Proiekzioa amaitu eta gero, berbaldia egingo dute Lorena Fernández Álvarezek lagunduta. Fernandez informatika ingeniaria da, eta aditua adimen artifizialean eta ikuspegi feministan. Bere lan arloak, besteak beste, adimen artifizialeko sistemetan dauden genero-joerak eta joera intersekzionalak dira. Halaber, *La inteligencia artificial* liburuaren egilea da.

Antolatzaileen berbetan, dokumentalak "bereziki kezkagarria" den errealitatea ipintzen du mahai gainean: Teknologia berriak emakumeen aurkako sexu-indarkeriaren tresna legez erabiltzea. "Irudi faltsuak sortzeko erraztasunak, eta irudi horien hedapen azkarrak eta arduradunak jazartzeko zailtasunek agerian uzten dute indarkeria matxista errepikatu egiten dela eta dimentsio berriak hartzen dituela ingurune digitaletan", argitu dute.





Urkiolan ipinita dagoen karteletariko bat.

Txakurrak solte eramateagaitik lau isun ipini dituzte Urkiolan

Bizkaiko Foru Aldundiak ohartarazi du Urkiolako parke naturalean txakurrak lotuta eraman behar direla

Maialen Zuazubiskar ABADIÑO

Bizkaiko Foru Aldundiak jakinarazi du txakurrak derrigorrez lotuta eraman behar direla parke naturaletan, eta herritarrei mesedez eskatu diete legea betetzeko. "Oso garrantzitsua da txakurrak lotuta eramatea parke naturalak bisitatzen direnean. Neurri horren helburua fauna basatiari eta parke naturalean dauden aziendei kalterik ez eragitea da, baita animalien artean arrisku egoerak prebenitzea ere", esan dute ohar baten bitartez.

"2025ean, aurten baino 9 isun gehiago ipini zituzten Urkiolako Parkean, 13 guztira"

Horrez gainera, ohartarazi dute 2022tik hona Aldundiko Ingurumen Zaintza eta Ertzaintza kontrolak egiten dabiltzala txakurrak lotuta doazela ziurtatzeko; eta, gainera, horretan jarraituko dutela. "Natura-ondareko gune babestu baten barruan txakurrekin baimenik barik zirkulatzea, uhalagaz lotuta eraman barik berariaz baimendutako une edo lekutik kanpora, arau-haustea da. Beraz, araua hausteak isunak izan ditzake, 200etik 3.000 eurora bitartekoak", gaineratu dute.

Isun kopuruari dagokionez, honako hau jakinarazi dute: 2022tik Urkiolako eta Gorbeiako parke naturaletan 47 isun erregistratu dira, eta horietatik hamabi 2026an ipini dituzte. Hamabi horietatik lau, Urkiolako parke naturalean. Orain-goz, iaz baino bederatzi gutxiago dira.

Udalak Laubidetako autobus geltoki bien irisgarritasuna hobetuko du



Laubidetako autobus geltokiak.

M.Z. ABADIÑO

Abadiñoko Udalak lizitaziora atera ditu Traña-Matienako San Blas ostatutik gertu dauden autobus geltokietako irisgarritasuna eta segurtasuna hobetzeko obrak. Udalak jakinarazi duenez, lan hauei eskerrak auzotarren eskaera historikoari erantzun ahal izango zaio eta erabiltzaile guztientzako sarbide segurua eta irisgarria bermatuko da errepidearen alde bien artean.

Udalak gaineratu du hainbat aukera aztertu dutela Aldundiko Azpiegitura eta Lurralde Garapenerako Sailagaz batera, eta, azkenean, geltoki biak zuzenean, modu seguruan eta irisgarrian lotzea erabaki dutela. Hori horrela, semaforoz erregulatutako pasabidea egingo dute oinezkoentzat N-634 errepidean, eta, beraz, ez da beharrezkoa izango azpiko pasagunea erabiltzea.

Abadiñon martxan da aurrekontu parte hartzaileen lehenengo fasea

M.Z. ABADIÑO

Abadiñoko Udalak martxan ipini ditu 2027ko aurrekontu parte hartzaileak, herritarrek udalerriko etorkizuneko proiektuetan zuzenean parte hartzeko aukera izan dezaten. Ekimen honen bitartez, abadiñarrek udal aurrekontuaren zati baten erabilera erabakiko dute, euren proposamenak aurkeztuta eta ondoren lehentasunezkotzat jotzen dituzten ekimenak bozkatuta.

Udalak 150.000 euroko diru partida erabiliko du aurrekontu parte hartzaileetarako. Udalak jakinarazi duenez, proposamenek interes orokorrekoak izan beharko dute, udalaren eskumenekoak, teknikoki eta ekonomikoki bideragarriak, eta herriaren ongizatea edo bizi kalitatea hobetzea izango dute helburu.

Proposamenak aurkezteko lehenengo fasea azaroaren 5etik 22ra bitartean izango da. Epe horretan, 16 urtetik gorako herritarrek parte hartu ahal izango dute. Ideiak Internet bidez aurkeztu ahal izango dira, baita gune hauetan ere: Traña-Matienako eta Zelaietako udal bulegoetan, jubilatuen tabernetan, Astolako kiroldegian, Errota Kultur Etxean eta Mediatekan.

Ondoren, jasotako proposamenak udal zerbitzu teknikoak aztertuko ditu, eta aukeratutakoak bozketa fasera igaroko dira gero.

Mallabiarrok Egina irteeran, euskal pilota izango da protagonista

M.Z. MALLABIA

Berbalagunen barruko 'Mallabiarrok Egina' ekimenak hamabosgarren irteera egingo du zapatu honetan. 'Mallabia euskal pilota ere bada' izena ipini diote irteera honi.

10:30ean ipini dute ordua, Elizpean. Bertan, Koldo Praderak 'Elizpeko pilota lehiaketa'-ren inguruko azalpenak emango ditu. Ondoren, Mallabiko frontoira joan eta han Itsaso Praderak, Esti Gonzalezek, Aitor Elordik, Jare Landak eta Naroa Martinezek solasalditxoa izango dute. Goizari amaiera emateko, Ez Esan lehiaketaren finala eta mokadutxoa egongo dira.



"Fiskalitate orekatuaren alde", Mallabiak zergak eta tasak izoztu ditu

M.Z. MALLABIA

Urriaren 23an egindako osoko bilkuran, Mallabiko Udalak 2027rako ordenantza fiskalak onartu zituen. Bertan, udal zergak eta tasak ez igotzea erabaki zuten, salbuespen bakarragaz: etxebizitzen eta saltokien hondakinen bilketa tasa %1 igotzea. Era berean, turismo tasa berria ezartzea ere onartu zuten. Udalak esan duenez, Jaurlaritzaren proposamenean jasotako zenbatekoa izango da erreferentzia.

"Egonkortasun fiskalaren aldeko apustua egiten dugu, zergen eta tasen igoera orokorrak saihestuta eta hondakinen bilketa tasaren igoera %1era mugatuta. Fiskalitate orekatuaren aldeko konpromisoa berresten dugu, udal zerbitzuei eusteko eta herritarren beharrizanei erantzuteko, zergen presioa oro har handitu barik", azaldu du Mallabiko Udalak.



GREMIOEN *gida.*

Iragarkia ipini gura baduzu, deitu **688 731 402** zenbakira

DEKORAZIOA

JAIObarnizatuak

Armairu eta era askotariko altzairuen lakadura eta guztietako zaharberritzeak egiten ditugu

Eitua Industrialdea, 45 Garaia A · BERRIZ
Tel./Faxa: 946 824 143 · Mug.: 658 758 421
info@jaiobarnizatuak.com
www.jaiobarnizatuak.com

ZURGINTZA

leike Eraberritzeak Interiorismoa Aroztegia

NEURRIRA EGINIKO PROIEKTUAK

www.leike.eus
Antso Estegiz, 3 Durango
Tlf.: 94 681 72 29

ZURGINTZA

ATERPE AROTZAK
EGUR ERAIKUNTZAK
TEILATU ETA BARRUKO LANAK

Asier Abendibar
635 74 84 65
www.carpinteriaaterpe.com

ELEKTRIZITATEA

ELECTRICIDAD JON

622 684 284
electricidadjon@outlook.es

ITURGINTZA

UNAI GARAY
ITURGINTZA
BEROGINTZA
GASA

INSTALATZAILE BAIMENDUA

659 673 790
unaigaray@yahoo.es

"BBT martxagaz Palestinari elkartasuna adierazi eta diru bilketa egin gura dugu"

ZUGAITZ AYUSO APAOLAZA ETA JUANJO OBREGÓN SANCHO PALESTINAREN ALDEKO BTT MARTXA



Zugaitz Ayuso eta Juanjo Obregón, ekimena iragartzen duen kartelaren aurrean.

J.D. ELORRIO

Zapatu honetan ibilbide biko BTT martxa solidario bat egongo da Elorrion. Palestinako herriari elkartasuna adieraztea eta han laguntza humanitarioa ematen dabilen Gobernuz Kanpoko Erakunde batentzat dirua batzea dira martxaren helburuak. Juanjo Obregón Elorrio Palestinarekin mugimenduko kidea da eta Zugaitz Ayusok bizitza osoa darama bizikleta munduari lotuta. Mugimenduaren eta hainbat herritarren artean antolatu dute ekimena.

Zelan sortu zen ekimena?

Zugaitz Ayuso: Lagun artean okurritu zitzaigun. Dirua batzeko, bizikleta martxa bat egin zitekeela bota nion Juanjori. Beste egun batean, mendiko bizikletan askotan ibiltzen den beste lagun bati komentatu nion eta hari ere ideia ona iruditu zitzaion. Ondoren, hainbat pertsonaren eta Elorrio Palestinarekin mugimendukoen artean antolatu dugu. Udalaren laguntza ere izan dugu.

Zein da ekimenaren helburua?

Juanjo Obregón: Helburu nagusi bi ditu. Batetik, Palestinako herriari babesa eta elkartasuna adierazi gura dizkiogu. Bestetik, hango egoera humanitario dramatikoa ikusita, han bertan lan egiten duen Mundubat Gobernuz Kanpoko Erakundearentzat dirua batzea. Gaur egun Palestina ia desagertu egin da komunikabideetatik, baina Israelek bere genozidioagaz jarraitzen du eta lurren %70 okupatua du. Zisjordanian ere oso larria da egoera. Kolonoen erasoak geroago eta bortitzagoak dira, militarren oniritziagaz edo laguntza zuzenagaz. Horregaitik, Palestinari elkartasuna erakusten jarraitzea premiazkoa dela uste dugu.

Zelan joan da izen ematea?

J.O.: Internetez 50 bat lagunek eman dute izena. Egunean bertan ere eman ahal izango da. Postu bat ipiniko dugu plazan.

Zer egongo da goizean zehar?

Z.A.: Ibilbide bi daude: 20 kilometroko bat eta 10eko beste bat; 09:00etan eta 10:00etan hasiko dira, hurrenez hurren, Elorrioko plazatik. Umeentzako tailerrak eta jolasak ere egongo dira, eta baita martxa txiki bat ere eurentzat. Txosna bat ipiniko dugu, tragoak eta pintxoak egongo dira salgai. Kirola jai-giroagaz uztartzeko aukera ederra dela uste dugu.

Baturiko dirua Mundubat GKEari emango diozue. Zergaitik erakunde honi?

J.O.: Aukera batzuk aztertu genituen eta azkenean Mundubat aukeratu genuen, Palestinan bertan lan egiten duelako. 28 urte daramatza bere proiektua garatzen. Orain laguntza humanitarioa ematea da euren proiektu nagusia: ura, elikagaiak eta oinarrizko gauzak. Baina beste arlo batzuetan ere badabiltza. Bizikleta martxaz gainera, azken hileetan hainbat ekimen egin dugu dirua batzeko: materiala saldu dugu, zozketak... Udalean guk aurkezturiko mozio bi onartu dituzte Palestinara laguntza ekonomikoa bidaltzeko.

Beste ezer gehitu gura duzue?

Z.A.: Ume, heldu, adineko eta adin guztietakoak gonbidatu gura nituzke Palestinan egoera oraindino zelan dagoen gogoeta egin dezaten. Bakoitzak bere aletxoa ipinita, aurrerapauso txikiak egin daitezkeela uste dugu eta horixe dugu helburu ekimen honegaz, guk ere gure aletxoa ipintzea. Hemen txirrindularitzak beti izan du indar handia, eta, beraz, indar horren bueltan eta giro euskaldun eta jatorrean diru bilketa polit bat egitea dugu helburu, Palestinako herriari laguntzeko.

Elorriarrek musika eskola hobetzea aukeratu dute bozketa bidez

J.D. ELORRIO

Elorrioko herritarrek musika eskolan hobekuntzak egitea lehenetsi dute 2027ko aurrekontu parte hartzaileetan. Bost aukeraren artean proposamen honek lortu du botorik gehien: 159 (%45,3). Beraz, udalak adierazi duenez, jarduketa hori lehenetsiko du prozesurako erabiliko dituen 50.000 euroekin.

Bigarren tokian Hilario Azkarate pilotalekuko hormak konpontzeko proposamena geratu da, 87 botogaz. San Joseko haur parkea berrizteko eta baselizan esku hartzeko proposamenak 46 boto jaso ditu. Zuhaixkak kenduta eta bestelako landare batzuk landatuta Kanpokaleko parkea egokitzeko asmoak 41 boto izan ditu, eta hilerriko eraikinetako teilatuak konpontzekoak 18 boto. Bozketa fasean 387 erregistro jaso dira guztira; horietatik 351 izan dira baliozkoak. Botorik gehienak bozketarako bideratutako webgunearen bitartez jaso dira: 291.

Elorrioko San Agustin auzoan espaloi berria egiten hasi dira asteon

J.D. ELORRIO

San Agustin auzoan oinezkoentzako espaloia eraikitzen hasi ziren martitzenean. Ibilbide berria Durangoko noranzkoan doan errepidearen paralelo joango da, eta elizatik hasi eta gaur egun dagoen oinezkoen pasabiderainoko tartea hartuko du, udalak ohar batean azaldu duenez.

Lanek lau aste irautea aurreikusten dute, eta denbora tarte horretan zirkulazioan eragina izango denez, ibilgailuen joan-etorriak semaforo bidez arautuko dituzte. Udalak zehaztu duenez, jarduketa hau 2026ko udal aurrekontuak onartzeko Podemos alderdiagaz lorturiko akordioaren esparruko konpromisoetariko bat da.


Lanek lau aste irautea aurreikusten dute.

Mañariarrak auzolanean batuko dira azaroko zapatu bitan


Mañariarrak iazko auzolanean.

J.D. MAÑARIA

Mañariko herritarrak auzolanean batuko dira azaroaren 14ko eta 21eko zapatuetan. Herriko auzo bideak garbitzea eta inguruko beste hainbat lan egitea izango dute helburu, herriko auzoak eta ingurunea auzolanean zaintzeko.

Bigarren jardunaldian, azaroaren 21ekoan, parte hartzaileak bazkaltzeko elkartuko dira lanak amaitu eta gero. Horrela, auzolanak dakarren elkarlana eta herritarren hartu-emana indartzeko aukera ere izango dute.

'Hotz ala bero, irakurri egunero' ipuin kontalari saioa Izurtzan


Miru sorgina.

J.D. IZURTZA

Izurtzako erabilera anitzeko gelak 'Hotz ala bero, irakurri egunero' izeneko ipuin kontaketa saioa hartuko du domekan, 17:30ean. Bost urtetik gorako umeei zuzenduriko saioa da. Miru Sorginak gidatuko du ipuin kontaketa, eta, besteak beste, irakurketak irudimenean, askatasunean eta alaitasunean duen indarra landuko dute bertan. "Irakurtzean amets egiten dugu, amets egitean hegan egiten dugu, eta hegan egitean libre gara", esan dute saioaren antolatzaileek ekimenari buruz.

ZOZKETA BEREZIA . ZOZKETA BEREZIA . ZOZKETA BEREZIA . ZOZKETA BEREZIA . ZOZKETA BEREZIA . ZOZKETA BEREZIA

ANBOTOKIDE

25 URTE 25 SARI 25 EGUNETAN

Oso urteurren berezia da guretzat,
eta bidelagun izan zareten guztioi
bihotzez eskerrak eman gura dizkizuegu,
zuen babesa ezinbestekoa da eta.

Oraindino ez zara **ANBOTOKIDE**?
Batu komunitatera eta ez galdu aukera!

Durangaldeko produktu sorta

Garai konserbak eta Urien gaztandegiko produktu sorta

Talaso Zelai Hotel Zumaia



Talaso eskaera eta gosaria Zelai Hotelean

ZUMAIA

Gailu elektrikoen sorta



Alcamperen eskutik etxerako gailuak

Keinu Optometria Zentroa



150€-ko bonua zerbitzu edo produktuetan

BERRIZ

Mikel Caravaning



Lau etzaulki mahaitxoarekin

IURRETA

Aurpegiko tratamendua



Virginia Ansorenaren eskutik, aurpegiko tratamendu premium-a

DURANGO

Garena Jatetxea



Lagun birentzako taberna menua

DIMA

Neumaticos Etxebarria



100€-ko bonua pneumatikoetan

DURANGO

Errigorako otzara gorria



Nafarroako Erriberak emandako produktuekin gozatzeko aukera

Musika sorta



F.Muguruzaren binilo bikoitza eta Ukelele instrumentu bat

Latxaberri txahal okela



5 kg-ko LOTEA.
650 g-ko 8 paketa

ABADIÑO

Txirrindularitzarako materiala



Cicles Iturriaga, Basati Bike eta Malda Bikes-en materiala sorta

ABADIÑO

Mancisidor 1866



Mancisidor bitxi dendaren eskutik 300€-ko bonua

DURANGO

2200-ko Magefesa parrilla elektrikoa



Itzarbe Elektrotresnak-en eskutik 2200w-ko parrilla elektrikoa

IURRETA

Eusko Label Winter Series



Finala
2 sarrera
OTSAILAK 13

GERNIKA

946 816 558
anboto.org/egin-kide

EGIN ANBOTOKIDE

AirFryer-a



AZAROAK 6

4 litroko AirFryer-a Jocca

Ultzamaren produktu sorta



AZAROAK 9

Ultzamaren eskutik, produktu sorta paregabe bat

Urkioil gasolindegia



AZAROAK 10

70€-ko bonua erregaian

IZURTZA - OTXANDIO

Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa



AZAROAK 12

Finalaurrekoa
2 sarrera
ABENDUAK 5

BILBO

Jauregibarria Jatetxea



AZAROAK 13

Lagun birentzako afari menua

ZORNOTZA

ZOZKETA BEREZIA . ZOZKETA BEREZIA . ZOZKETA BEREZIA . ZOZKETA BEREZIA . ZOZKETA BEREZIA . ZOZKETA BEREZIA

Greba orokorra, etxebizitzaren egoera "jasanezina" salatzeko eta neurriak hartzeko

Hego Euskal Herriko gehiengo sindikalak lanuztera deitu du azaroaren 11rako

Ekaitz Herrera DURANGALDEA

"Etxebizitzaren arazoa langileria pobretzeko arrazoi nagusietariko bat" bihurtu dela eta, euskal gehiengo sindikalak greba orokorrera deitu du datorren eguaztenerako, azaroak 11. Etxebizitzarako eskubidea bermatzea eskatuko dute, baita espekulazioari aurre egiteko neurriak hartzea exijitu ere. Ildo horretan, "errentismoa eta negozioa amaitzeko egiturazko neurriak" eskatuko dizkiete patronalari eta instituzio publikoei: alokairu kontratu mugagabeak ahalbidetzea, etxebizitzen prezioak jaistea eta merkatuan esku hartzea, etxegabetzeak amaitzea, eta funts putreak desjabetzea eta Euskal Herritik kanporatzea, besteak beste. Hego Euskal Herrian ELA, LAB, ESK, Steilas, Etxalde eta Hiru sindikatuek deitu dute lanuztera, baita Euskal Herriko Etxebizitza Sindikatuen Sareak eta Etxebizitza Sindikatu Sozialistak ere. CCOO, UGT eta CGT sindikatuek Hego Euskal Herrian eta Espainiako estatu osoan egin dute lanuzte orokorrerako deialdia.

LABeko Iratxe Delgadoren esanetan, "etxebizitzaren auzia herritarren kezka nagusi bihurtu da azken urteotan", eta gaia agenda mediatikoan sartu da "Madrilgo Mari Carmenen etxegabetzea eta eragile sozialen urte luzeetako antolakuntza-lana tarteko". Alabaina, egoera "jasangaitz" horren zantzuak atzeragotik datozela esan du, "etxebizitzen eta alokairuen prezioa bi bider gehiago igo delako soldaten igoeren aldean". "Eta pentsioek gora egin duten arren, gehiago igo da etxebizitzaren prezioa. Norabide horrek pobretzea dakar", ohartarazi du Delgadok. ELAko Xabi Zabalak ere ildo horretan berba egin du. "Azken hamarkadan alokairuaren eta etxebizitzen prezioak %60 igo dira, baina soldatak ez dira neurri berean igo", esan du. Horregaitik, greba orokorra presioa eragiteko tresna izan daitekeela iritzi diote ELAk eta LABek: "Etxebizitzagaz negozioa egiten duen patronal horri erantzun egin behar diogu, bankuei, promotoreei zein etxe-jabe espekulatzaileei. Bestalde, Eusko Jaurlaritzak, Nafarroako Gobernuak, Aldundiek eta udalek eskumen zabala dute etxebizitza politikan esku hartzeko", azaldu du Delgadok. "Etxebizitzak eraikitzeko aurrekontua handitzea eskatu behar diogu Eusko Jaurlaritzari, eta alokatzaileek dituzten pribilegio fiskalak kendu", proposatu du Zabalak.

Bilboko manifestazioa 12:30ean irtengo da, Arriagatik. Eskualdean, oraingoz, Durangokoa lotu dute. 18:00etan, Landakoko tximinian.



ELAko 200 bat delegatu greba prestatzeko batu dira Durangon.



Etxebizitza Sindikatu Sozialistak bilerak egin ditu herririk herri.

Parte hartze aurrekontuak martxan Zaldibarren

Ekaitz Herrera ZALDIBAR

Zaldibartarrek zabalik dute epea 2027ko parte hartze bidezko aurrekontuetan proposamenak aurkezteko. Interesdunek bide bi dituzte ideiak udalari helarazteko: bata udal bulegoak dira. Bertan bete daitezke inprimakiak. Bestea liburutegia da. Udalak buzoi bat ipini du bertan, bete beharreko hainbat orrigaz. Azaroaren 26an amaituko da proposamenak egiteko epea. Hortik aurrera, udaleko bulego teknikoak ideiak aztertuko ditu bideragarriak diren ala ez jakiteko, eta udalak ezarritako diru atala gainditzen duten ala ez ikusteko. Izan ere, Zaldibarko Udalak 20.000 euroko diru partida prestatu du 2027ko parte hartze bidezko aurrekontuetarako.

Era berean, Zaldibarko Udalak jakinarazi du 2025eko eta 2026ko proiektu irabazleak egikaritze bidean daudela. Olazarko ur txorroak urtea amaitu baino lehenago hasiko dira berrizten, eta Gernikako Arbola parkea berrizteko obra 2027a baino lehenago lizitatuko dute. Bertan, berdegunea handitu eta zuhaitzak landatuko dituzte. Halaber, txintxaunak berriztuko dituzte.

Antsietatea "modu osasuntsuan" kudeatzeko ikastaroa

A. M. BERRIZ

Osakidetzak, Durangaldeko Mankomunitateak eta Berrizko Udalak elkarlanean, antsietatea modu osasuntsu batean kudeatzeko ikastaroa antolatu dute emakumeentzat. Ordu biko hamabost saiok osatuko dute ikastaroa. Antolatzaileen esanetan, antsietatea eta emozioak ulertzeko, sentitzeko, onartzeko eta lasaitasunetik komunikatzeko baliagarriak diren gaiak jorratuko dituzte. Izena emateko epea azaroaren 20ra arte egongo da zabalik, eta hiru aukera eskaini dituzte: 94 6200520 telefonora deituta, *adikzioak@dma.eus* helbidera idatzita edo Durangoko Elkartegira joanda.

Eraikin publikoen erabilera hobetzeko, iritzi bila Atxondon

A. M. ATXONDO

Atxondoko eraikin eta ekipamendu publikoen erabilera aztertu eta herritarren beharrak eta proposamenak jasotzeko, saio bi antolatu ditu Atxondoko Udalak. Lehenengoa, azaroaren 10ean izango da; eskola komunitatearentzako saioa izango da, erabilera anitzeko gelan egingo dute, 16:30ean hasita. Azaroaren 17an atxondar guztiei irekitako saioa egingo dute eskolako gimnasioan, 18:00etatik aurrera. Besteak beste, eskolako espazioei buruz eta Urkuzuren erabilerei buruz hitz egingo dute saioetan. Jasotako ekarpenak, eraikinen "erabilera estrategia" lantzeko oinarria izango dira.

Kultur Aniztasun Kontseilua ipini dute martxan Otxandion

A.B. OTXANDIO

Kultur Aniztasun Kontseilua eratu dute urrian Otxandion. Bi-hiru hileko maiztasunagaz elkartuko da, eta bertan udalak, jatorri atzerritarreko zenbait herritarrek eta hainbat eragilek parte hartuko dute; halanola 11Lore elkarteak, Mainondo Eskolak eta Urduri dantza taldeak. Kontseilu eratu berriak ardura hartuko du kultur aniztasuna eta elkarbizitza aztertzeko iaz egindako azterketan jasotako lan-ildoak garatzeko, herri geroago eta inklusiboagoa, kohesionatuagoa eta anitzagoa lortzeko. Besteak beste, Harrera Gida eguneratu eta osatuko dute, egungo premiak kontutan hartuta.

Garaiko nagusiak, Foru Jauregian



GARAIKO NAGUSIAK

Ekaitz Herrera GARAI

Garaiko nagusiek argi daukate ekintza eta irteera kulturalak zahartze aktiborako giltzarri direna. Joan zen eguenean, trena hartu eta arratsalde-pasa kulturala egitera joan ziren Bilbora. Bertan, bisita gidatua egin zuten Bizkaiko Foru Aldundiaren barrenak ezagutzeko. Kuadrilla ederra batu zen. Horren lekuko, Lazaro Milikua antolatzaileak argazki hau bidali digu.

Alokairu sozialerako eta etxe hutsak ateratzeko neurri berriak, Iurretan

2027ko ordenantza fiskalek %3,6 euroko igoera jasoko dute Iurretan, baita OHZn egindako hainbat aldaketa ere

A.B. IURRETA

Udal tasek %3,6ko igoera orokorra izango dute 2027an Iurretan, zerbitzuen iraunkortasun ekonomikoa bermatu guran. "Kostuak handitzen doazen neurrian, diru sarrera egonkorrak eta nahikoak mantentzea da helburua, udal zerbitzuak emango direla ziurtatzeko", jakinarazi dutenez. Bestalde, Ondasun Higiezinen Zergan (OHZ) aldaketak egin dituzte.

Batetik, higiezinen erabileraren araberako zerga-tasa moldatuko da 2027an: higiezinek zerga-sistema bereizia izango dute bizitegi-jabetzetarako, merkataritza- eta industria-jardueretarako eta bizilekurako ez diren beste erabilera batzuetarako. Bizitegi-eremuan txikiagoa izango da zerga-tasa, etxebizitzei aplika dakiekeen tasa murriztuz eta herriko familien zuzeneko karga fiskala arinduz. Bestetik, tasa bereiztuak jasoko dira katastro-baliorik handienak dituzten merkataritza- eta industria-higiezinetarako, eta bizitegikoak ez diren beste erabilera batzuetarako higiezinetan.

%50eko hobaria

Horrez gainera, alokairu soziala sustatzeko eta etxe hutsak kaleratzeko, neurri berriak jasoko dira OHZn; Jaurlaritzak alokairu soziala sustatzeko eta etxe hutsak ateratzeko bultzatutako programetan dauden bizilekuek %50eko hobaria izango dute. Aldiz, %50eko errekargua aplikatuko zaie "arrazoi justifikaturik barik modu jarraian hutsik" dauden etxebizitzei, ordenantzan ezarritako baldintzen arabera. Familia ugarientzako zein guraso bakarreko familientzako hobariak ere jaso dituzte.



Iazko emanaldiko irudi bat.

Loturak estutzeko udazkeneko emanaldia, aurten Venezuelaren alde

A. M. ZORNOTZA

Zornotzako abesbatza guztiek bat egingo dute, beste urte batez, udazkeneko emanaldi berezia egiteko. Aurten, gainera, elkartasunezko keinua egingo dute. Emanaldian Venezuelaren aldeko diru bilketa egingo dute; ekainean herrialde latinoamerikarraren iparraldea astindu zuen lurrikarako biktimen artean banatzeko batuko dute dirua. Udabarri dantza taldeagaz batera, Zornoza, Abes-kimu, Xuxurlariak, Dizdira eta Andra Mari Ikastolako Gurasoen abesbatza, eta Zornotzako otxotea batuko dira. Emanaldia Zornotza Aretoan izango da, abenduak 13, 19:30ean. El Carmelo ikastetxearen, Uoma dendaren eta Zornotzako Udalaren babesa du.



Portalo da hileko Anbotokidea

Hile hasieragaz batera, badaukagu azaroko Anbotokidea. Oraingoan Lacturaleren esneki-sorta Durangora joan da. Bidatz Portalo izan da onuraduna.

Zuk ere sari paregabe hau irabazi gura duzu? Anbotokidea bazara, bete galdetegia. Anbotokide ez bazara, lehenengo egin zaitez Anbotokide, eta ondoren parte hartu.



DURANGALDEA ASTEON

Berbalagunak karakolak eta galeperrak kozinatzera joango dira martitzenean

BERRIZ Datorren martitzenean, azaroak 10, Durangoko berbalagunek sukaldaritza tailerra prestatu dute kozinatu bitartean euskaraz egiteko. Jardunaldia Berrizko Pedro Juan jatetxean egingo dute, 18:00etan, eta bertako sukaldari Kepa Imaz izango dute bidelagun.

Zornotzako haurrek dagoeneko aukera daukate Negulekuetan izena emateko

ZORNOTZA Dagoeneko zabalik dago Zornotzako Negulekuetan izena emateko epea, azaroaren 18ra arte. Haurrentzako aisialdi programa hau abenduaren 28an, 29an eta 30ean, eta urtarrilaren 4an eta 5ean eskainiko dute, Zelaieta Zentroan. 2016tik 2022ra bitartean jaiotako umeentzat da.

Martxan da AMEren 'Abadiñon erosi, zigilatu eta irabazi' kanpaina

ABADIÑO Abadiñoko Merkatari Elkarteak (AME), udalagaz elkarlanean, 'Abadiñon erosi, zigilatu eta irabazi' kanpaina martxan ipini du. Ekimenaren helburua herriko establezimenduetan erosketak bultzatzea da. Kanpaina azaroaren 22ra arte egongo da martxan.



Galako argazkia. THE BEST 50 RESTAURANTS

Axpeko Etxebarri jatetxea munduko jatetxerik onena izendatu dute

ATXONDO Bittor Arginzoniz Etxebarri jatetxea munduko jatetxerik onena aukeratu dute. The Best 50 Restaurants-ek egindako zerrenda Liman aurkeztu dute aste honetan. Oraintsu, Txispa jatetxea 80. zerrendatu zuten, eta, beraz, munduko 100 jatetxerik onenen artean Durangaldeko bi daude.

GUTUNAK

Zure gutuna helarazteko helbidea: Bixente Kapanaga 9 - Iurreta
DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO: Izen-abizenak / Telefonoa / / Helbidea / Nortasun Agiriaren zenbakia.
Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

POLITIKAN

Espazio berri bat



JESICA RUIZ
PSE-EE

Joan den ostegunean, Adinekoen zentro berriaren diagnostikoa aurkeztu genuen. Durangon baditugu 65 urtetik gorako 6.854 pertsona, espazio berri bat merezi dutenak. Diagnostikoa egin dugu prozesu erabat parte-hartzaile baten bitartez: 300 galdetegi baino gehiago bete dira, eta 40 pertsonak baino gehiagok hartu zuten parte ekainean egindako herri-topaketan.

Zaila da lan guztia zutabe honetan laburtzea; txosten osoa udalaren webgunean dago eskuragarri.

Ondorio nagusiak argiak dira. Pertsonek espazio irisgarri, eroso, argitsu, balioaniztun eta malgu baten aldeko apustua egiten dute. Gehien eskatzen diren espazioak hauek dira: kafetegia, jarduera fisikoetarako gimnasioa, tailerretarako gelak, ekitaldi-aretoa, elkarteentzako eta kanpoko espazioak. Zentro berriak topaketa informalak egiteko lekua izan behar du; eremu komunak, harrera ikusgarria, ongizate-zerbitzuak (osasuna) eta jarduera (aisia) konbinatzen dituena.

Hurrengo urratsa proiektua idaztea izango da. Obrari ekiteko 50.000 euro daude aurreikusita, eta espero dugu 2027an hasiera ematea. Proiektuak, gainera, adostasun politiko oso zabala du.

Proiektu errealistak, bideragarriak eta herritarren benetako partaidetzarekin eginak; horrela ulertzen du politika Durangoko PSEk.

anboto

ARGITARATZAILEA
Gertuko Koop S.,
Gizarte Ekimenekoa

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558
Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902

Zuzendaria
Jone Guenetxea Arrinda.
Erredakzio burua
Ekaitz Herrera Azkarraga.
Administrazioa
Itziar Belar Zubizarreta.
Publizitatea
Goretti Alonso Armendia.
Erredakzioa
Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba Derteano Bilbao, Maialen Zuazubiskar Gallastegi, Aritz Maldonado Zabala.
Marketina
Deñe Izaga Yeregui.

Maketazioa
Eider Alberdi Bengoa.
Zuzentzailea
Mikel Azkarraga Etxegibel.

Lege gordailua: BI-2268/01
ISSN: 1578-7028
Tirada: 12.000 ale

LAGUNTZAILEAK
ABADIÑO ATXONDO BERRIZ DURANGO ELORRIO GARAI IURRETA
IZURTZA MALLABIA MAÑARIA OTXANDIO ZALDIBAR ZORNOTZA

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du

Bizkaia foru aldundia diputación foral

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

anboto

Garena kontatzeko

labur.eus/anboto

egin eskaera

ARROPA

SALMENTA ZABALIK


AZAROAREN 3tik 17ra

ONLINE DENDAN ESKARIAK EGIN AHAL IZANGO DIRA ANBOTOREN WEBGUNEAN



LERROEI JARRAITU

Lerroen gainetik marraztu



MATEMATIKAK









ANTZERKIA

"Antzerkiñok oinarri sendoa zuen, eta horri beste ekarpen bat egin gura izan diogu"

GONTZAL ROYUELA MANEIRO ANTZEZLEA ETA ANTZERKIÑOKO ANTOLATZAILEA



Gontzal Royuela, Abadiñoko gaztetxean.

Aritz Maldonado ABADIÑO

Joan den astean, Abadiñoko Antzerkiño jaialdiaren hamaikagarren edizioa hasi zen, Banarte antzerki konpainiaren *Cancún* antzezlanagaz. Sorkuntza garaikidea bultzatzeaz gainera, kalitatezko kultur eskaintza abadiñarren eskura ipintzea da jaialdiaren helburua. Gontzal Royuela abadiñarra Antzerkiñoren antolatzaileetariko bat da; Gorakada konpainiako aktorea ere bada.

Hainbat nobedadegaz dator Antzerkiño aurten.

Antzerkiñok hamaikagarren edizioa du aurtengoa eta oinarri sendo bat duela esan daiteke. Antzezlanek Errota kultur etxean eskaintzen zen zikloa osatzen zuten, eta, profesionalak ere etortzen ziren arren, antzerki amateurrak pisu handia zuen. Herritarrek ezagutzen zuten jaialdiaren oinarria, baina ekarpen gehiago egiteko aukera ere bazegoela uste genuen eta herriko beste zenbait lekutan egiteko proposatu genuen, izan ere, Abadiñok hainbat auzo du eta herritar guztiengana heldu gura genuen.

Formatu aldetik ere aldaketak daude.

Formatu desberdinen aldeko apustua ere egin gura genuen. Formatu txikiko eta handiagoko antzezlanak taularatuko dira. Jende hasiberriaren aldeko apustua ere egingo da, gazte sortzaileen aldekoa. Jendea urte askoan egon da lanean eta horri ekarpen bat egitea zen asmoa.

Euskarazko obra gehiago egongo da aurten.

Euskarak izan du presentzia Antzerkiñon, baina aurten proposatu diren antzezlanen artean oraindino gehiago izango dira euskarazkoak. Esango nuke, gainera, euskaratik eta euskararako sorturikoak direla, eta hori ere igarriko dela ikusterakoan. Antzezlan batzuk gaztelaniaz sorturikoak dira, gero euskarara itzulitakoak, baina aurten aukeratutakoak euskaraz sorturikoak dira. Beraz, euskarak leku handiago izango du eta ikusleek igarriko dute hori.

Emanaldietariko bat Gaztetxean izango da. Antzerkiaren mundura ikusle gazteagoak erakartzea da asmoa?

Orain artean, batez ere jende nagusia etorri izan da Traña-Matienako emanaldietara. Eta hori ondo dago, baina jende gaztea goarengana heltzeko erronkari heldu gura diogu, garrantzitsua dela uste dugulako, eta, horretarako, bide tradizionaletik harago joan behar delakoan nago. Eta esango nuke gaztetxeetan ere badagoela zaletasuna antzerkirako, eta aukera hori aprobetxatu behar dugu. Gainera, egun horretan pintxopotea ere egingo dugu. Beraz, plan polita da, freskoa. Antzezlana ikusi eta kopotxo bat egin.

Gaztetxeetan musikak protagonismo handiagoa izan du beti, baina bestelako ekimenak ere antolatu izan dira.

Bai, hala da. Gaztetxeetan musikak funtzionatzen du ondoen, musikak erakartzen du jenderik gehien, baina erronka polit bat dugu hor, eskaintza zabaltzekoa. Eta, egia esanda, gaztetxeetan dagoeneko hartu dira beste bide batzuk ere. Adibidez, irakurketa klubak eta antzerki taldeak sortu dira.

> **"Karrera amaitzeagaz batera hasi nintzen lanean; 'Moko' antzezlanean lan egin nuen"**

Zelan zaletu zinen zu antzerkira?

Txikitatik gustatu izan zait. Gero, arte eszenikoak eta arte dramatikoa ikasi nituen Bilbon. Horixe izan da nire prestakuntza nagusia, eta zaletasuna izatetik gauza apur bat profesionalagoa bihurtu da niretzat. Banarten ere ibili nintzen sasoi batean, eta orain Gorakadagaz lan egiten dut. Zortea izan nuen, karrera amaitzeagaz batera hasi nintzen eta. *Moko* antzezlanean lan egin nuen. Gaur egun ere formakuntza jasotzen jarraitzen dut, ikastaroen bitartez.

Antzerkiaz harago, telebistan edo zineman lan egin duzu?

Film labur pare batean parte hartu dut, baina nire prestakuntza eta ibilbidea lotuago daude antzerkira. Hala ere, denak bateragarriak dira. Ekonomikoki baldintzak hobeak dira zineman eta telebistan, eta ikusgarritasuna ere nabarmenagoa da horietan. Alde nabaria dago, baina geroago eta aktore gehiago ikusten da denean, baita antzerkian ere.

BIDEOA IKUSI



Imanol Ubeda eta Gorka Urbizu taldekideak, Durangoko Palentinoan, urriaren 19an.

MUSIKA

Peiremans+ taldeak bideoklipa filmatu du Durangoko Palentinoan

E.H. / M.Z. DURANGO

Peiremans+ pop rock taldea bueltan da, eta inoiz baino durangarrago gainera. Taldeak Durangoko Palentinoari eskaini dio abesti bat, eta taberna horretan bertan filmatu du, hain zuzen ere, abestiaren bideoklipa. Grabazio lanak urriaren 19an egin zituzten, Euskal Herriko askotariko musikariak, aktoreak zein idazleak lagun. "Durangoko Azokako egunetan giro berezia sortzen da Palentinoan. Kultura munduko *fauna* hemen batzen da eta giro berezia sortzen da. Pentsatu genuen polita izan zitekeela kanta bat hemen girotzea eta gure eszenarentzat kanta bat sortzea", azaldu du abestiaren jatorria Gorka Urbizu musikariak.

Peiremansek aste honetan bertan sareratu du bideoklipa, eta ANBOTOk ere beste horrenbeste egin du filmazio lanei buruzko erreportajea *anboto.org* atarian ipinita. Izan ere, hedabide honetako kazetariak filmazioaren lekuko izan ziren Palentinoan, urriaren 19an, eta hango giroa jaso zuten. Euskal Herriko eszenako sortzaileak jo eta ke zebiltzan plano eta sekuentzia artean grabazioan parte hartzen: Itziar Ituño, Edurne Azkarate, Flakofonki, Kiliki, Joseba Sarrionandia, Izaro, Gotzon Barandiaran eta Oier Guillan, besteak beste. Bideoklipa Arriguri ekoiztetxeak filmatu du.

Argitalpen berri bi

Peiremans+ taldea indartsu dator Durangoko Azokara. Batetik, LP batean batu dituzte euren lehenengo eta bigarren diskoetako kantak, eta argitalpen bateratu hori biniloan zein CDan dago salgai. Bestetik, disko berri bat plazaratuko dute, hirugarrena. Bost kanta izango ditu; tartean, *Durangoko Palentinoan*. Binilo txiki batek eta CD batek osatuko dute argitalpen hori. Hortik aurrera, taldeak zuzenekoetan ipiniko ditu indarrak: "Emanaldi ugari dugu aurretik, eta berotze lanetarako hiru gaztetxetan egingo ditugu emanaldiak", iragarri du taldeko Imanol Ubedak.

Astola 20, zenbaki berezia

Hogei urte dira, kartzela zaharraren izena hartuta, aldizkari honen argitalpenerako amesetan hasi ginela. Horregatik, zenbaki berezia dakargu, hainbat herritarren kolaborazioekin. Gainerako gaiak: Xabier Amurizari elkarrizketa, Kurutziagako Gurutzea, Iurretaren anexioa, Bitor Garitaonandia, Hontza museoa, Langile mugimendua eta auto-antolakuntza (1960-1979), Garaje Moreno, Foto Sol, Belatxikietako San Inazio ermita Zazpitxaboletan, Elorrioko armarriak, eta barruko ibilbideak.


Egileak

Jasone Agirre, Ainhoa Urien, Imanol Tabera, Markel Onaindia, Pello Zabarte, Itsaso Esteban, Xixili Bengoetxea, Miguel Martín, Txelu Angoitia, Juan Martin Iriondo eta Angel Larrea.

Saltokiak

Abadiño: Petite eta Zelaietako estankoa.
Berriz: Etxebarria estankoa.
Durango: Marpa, Gozotxori, Hitz, Arteka, Urrike, Etxebarria, Ikerfer eta Museoa.
Elorrio: Txokolat.
Iurreta: Iurretakopi.
Zaldibar: Imendia.
Durangoko Azokan abenduaren 4tik 8ra.

Dagoeneko salgai!
PREZIOA
10€



Liburu dendetan salgai
www.gerediaga.eus

gerediaga elkartea



Musikariak, Bartolome Ertzillako irakasle eta ordezkariak, eta kudeatzaileak.

MUSIKA

Dolmen Ensemblearen kontzertuagaz ekingo diote Musika Hamabostaldiari

Durangoko XXXVII. Musika Hamabostaldiak abenduaren 13ra arte iraungo du; bost emanaldik osatzen dute zikloa

Aritz Maldonado DURANGO

Musika klasikoa jendartera hurbiltzeko helburuagaz hasi zuten, orain ia lau hamarkada, Durangoko Musika Hamabostaldia. Zikloak 38. edizioa du aurten, eta bost emanaldi antolatu dituzte. "38 urte joan dira Hamabostaldia hasi genuenetik, baina benetan garrantzitsua dena ez da urte kopurua, ekimen honek zer lortu duen baino. Musika Hamabostaldia aukera bat da esperientzia berriak bizi eta musika klasikoa edozein publiko motari hurbiltzeko", azaldu zuen Arantza Barrenetxeak, Bartolome Erzilla musika eskolako presidenteak. Iker Ruiz de Alegria zuzendariak ere ildo beretik jo zuen prentsaurrekoan: "Hamabostaldiak belaunaldi desberdinak batzeko eta musika herritar guztien esku jartzeko gaitasuna du".

Zikloa Dolmen Ensemblea haize-boskotearen emanaldiagaz hasiko dute, domekan. Ander Erzilla artista eta Bartolome Ertzillako irakasleak beren-beregi idatzitako pieza bat joko dute, besteak beste. "Kontzertu honetan desberdina zen zeozer ikustea gura genuen", gaineratu zuen Erzillak. Bigarren emanaldia azaroaren 14an izango da; Anton Gomez saxofonista durangarrak eta Michel Reynoso pianistak elkarregaz joko dute; Nagaro Tamayo dantzariak ere parte hartuko du emanaldian. Bestalde, Aupa Stringsek *Playlist* ikuskizuna egingo du azaroaren 22an.

San Agustinegaz elkarlanean, Henry Purcellen *Dida&Eneas* opera emanaldia egongo da azaroaren 27an. Kulturguneak izan duen produkziorik handienetarikoa izango da: bederatzi abeslarik eta hamahiru musikarik parte hartuko dute. Zikloa Judith Jauregi pianistaren eta Ana Maria Valderrama biolinistaren kontzertuak itxiko du, abenduaren 13an. Artista biak aurretik ere egondakoak dira Hamabostaldian, baina orain elkarregaz arituko dira, lehenengoz.



Artxiboko irudia.

ZINEMA

24 Ordu Digitalean film laburren lehiaketaren 21. edizioa, asteburuan

A. M. ELORRIO

Elorrioko 24 Ordu Digitalean film laburren lehiaketa ezagunaren 21. edizioa egingo dute asteburuan. Ezagun egin duen formatuari eutsiko dio edizio berri honetan ere: esaldi, objektu eta gai zehatzak ezagutu, eta parte hartzaileek 24 ordu izango dituzte film labur bat aurkezteko. Hitzordua ere, urtero legez, 17:00etan egingo dute. "Jaialdiaren helburua multimedia munduaren zaleentzat parte hartze formula berria zabaltzea da, lantaldeak sortuta eta teknologia berriak erabilita. Sormenak, originaltasunak, ideia trebetasunak eta istorioen osaketak emaitza liluragarria eskaintzen dute beti", azaldu dute antolatzaileek. Iaz, adibidez, gaia oporrak izan ziren, erabili beharreko objektua pila, eta aipatu beharreko esaldia "Lagun onekin orduak labur".

Lanak bihar erakutsiko dituzte, azaroak 7, 20:00etan, Arriolan bertan egingo duten galan. Hiru sari banatuko dituzte bertan; talde irabazleak 700 euro poltsikoratuko ditu, eta beste talde finalista biek 500 euroko sari bana eramango dute. Informazio gehiagorako eta izena emateko, *24ordu@arriolaka.com* helbidera idatzi daiteke. Parte hartzaileek formatu digitalean aurkeztu beharko dute lana.

GAI LIBREAN



GARAZI ARRIZABALAGA CABRERIZO
DURANGOKO MUSEOA

Isilaraziak XVIII

Orain dela urte batzuk izan nuen Durangoko Museoan ikusgai dagoen erakusketa hau egiteko behar nuen bultzada, Markel Onandia eta Ainhoa Olaso Pilar de Zubiaurreri buruzko dokumentala egiten hasi zirenean. Bi proiektuekin aurrera egitea erabaki genuen, eta ordutik, 1884an Garain jaiotako emakume zoragarri honi buruz ikasten aritu naiz.

Harrigarria da gure kulturaren alde egindako lana. Bere bi nebak, Valentín eta Ramón, ezagunak nituen, biak pintoreak. Arreba gazte bat zutela banekien, baina Pilarrek egindako lana ez zen horretara mugatzen. Esan genezake, neurri handi batean, anaiek Pilarri esker lortu zutela izan zuten arrakasta: haien ordezkaria izan zen, eta erakusketak antolatzeko bidea erraztu zien. Familiak etxean gordetzen duen eta gaur egun museoan ikus daitekeen album batean argi ikus daiteke hori. Bertan, anaiek egindako erakusketa guztien prentsa-ebakinak bildu zituen.

Arte-kritikaria ere izan zen eta euskal artistak bilduko zituen museo baten beharra aldarrikatu zuen. 1910eko eta 1920ko hamarkadetan, hainbat artista hartzen zituen bere etxean, kulturari buruz hitz egiteko. Lyceum Club Femeninoren sortzaileetako bat ere izan zen. Emakumeen independentzia eta ahalduntzea sustatzen zituen elkarte hark, eta egoera zaurgarrian zeuden pertsonei laguntzen zien: alfabetatu gabekoei, haurrei, desgaitasuna zuten pertsonei eta baliabiderik ez zuten emakumeei, besteak beste. Elkartea 1926an sortu zen, duela ehun urte.

"Esan genezake, neurri handi batean, anaiek Pilarri esker lortu zutela izan zuten arrakasta"

1936an, gerra zibila hastearekin batera, kulturaren eta aurrerapenaren porrota ere iritsi zen. Askok erbesteratu behar izan zuten; Pilarrek, esaterako, Mexikora jo zuen. Ordura arte loratzen ari zen kulturak, gizarteak eta mugimendu feministak bultzatutako aurrerabideak etenaldi bortitza izan zuten.

Erakusketa honen bidez, haustura hartan isilarazi eta ahanzturan geratu zen ahots bat aldarrikatu nahi dugu: Pilar de Zubiaurrerena, baina baita garai hartako beste hainbaten ahotsak ere. Haien lana berreskuratzea gure kulturaren historiari falta zaion zati bat osatzea ere bada.

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEKO EGUERDIA BAINO LEHENAGO.
946 232 523 / *agenda@anboto.org*

BARIKUA 6

- **ABADIÑO Gure Zirkua** Zirkua. Zelaietan, 19:00etan.
- **ABADIÑO 'Fikziohesioa'** Kalte Kolektiboaren ikuskizuna. Gaztetxean, 19:00etan.
- **ABADIÑO Lionels** Kontzertua. Zelaietako jubilatuen tabernan, 20:30ean.
- **ABADIÑO i6** Kontzertua**.** Amaraun Arte Fabrikan, 19:30ean.
- **BERRIZ 'Jo'** Antzerkia Anduriña Zurutuzagaz eta Beatriz Egizabalegaz. Berrizko Kultur Etxean, 20:00etan.
- **DURANGO 'Landabarrenako Lamia. Garai 1884- Mexiko Hiria 1970'** Pilar Zubiaurreren lanak. Arte eta Historia Museoan, abendura arte.
- **DURANGO Durangaldeko Gazteen X. Arte Lehiaketa** Pintura eta marrazketa lehiaketa 12tik 18 urtera bitarteko gazteei zuzenduta. Ezkurdi Aretoan, azaroaren 27ra bitartean.
- **DURANGO 'Atzotik gaur arte'** Isabel Maria Peraltaren lanak. Ezkurdi Aretoan, azaroaren 15era bitartean.
- **DURANGO ' Posible al da plataforma digitaletako gorroto-diskurtsoak mugatzea?'** Berbaldia. Hizlaria: Iker Lauzirika Ansola (Konstituzio eta Europar Batasuneko Zuzenbideko doktoregaia EHUn). Bizenta Migel bibliotekan, 18:30ean.
- **ELORRIO 'Anöa'** Elvi Balboak sortu eta zuzendutako dantza ikuskizuna. Arriola antzokian, 20:00etan.
- **IURRETA Radio Rebelde** Kontzertua, Musikaldiaren barruan. Ibarretxe kultur etxean, 19:00etan.
- **ZALDIBAR 'Beyond the club'** Penelope Cerezo argazkilariaren lanekin osaturiko erakusketa. Xerra espazioan.
- **ZORNOTZA Kultur asteburua** Etxanoko Andra Mari elkarteak antolatuta. Irrintzi ikastaroa Amaia Garciagaz, eskolan, 18:00etan.
  Elustondo anai-arreben kontzertua, elizan, 19:30ean.
  Pintxoak, txokoan, 21:00etan.
  Etxano auzoan.
- **ZORNOTZA Luis Urrengoetxea kaleko jaiak** Perejilek folklore taldea, Lopenan hasita, 18:30ean.
  Erromeria, Euskal Herria enparantzan, 21:45ean.
- **ZORNOTZA 'Animaliategia'** Arte Ederren Bilboko Museoak eta BBK-k sustatutako Artearen Ibilbidearen zazpigarren edizioa. Herriko Plazan, azaroaren 8ra arte.
- **ZORNOTZA 'Plazatik ezin dut itsasoa ikusi'** XXIX. Bosteko ekimenaren barruan, Maider Gonzalo, Zuhar Iruretagoiena eta María Muriedas artista garaikideen lanak ikusgai. Zelaieta zentroan, azaroaren 27ra bitartean.

ZAPATUA 7

- **ABADIÑO 'Ama, amama, mamuak!'** Naiata Produkzioak-en umeentzako ikuskizuna. Errota kultur etxean, 17:00etan.
- **ABADIÑO Gure Zirkua** Zirkua. Zelaietan, 18:00etan.
- **ABADIÑO Kintoen Jaia** Musika, jolasak... batuko dituen egun osoko jaia. Bazkari autogestionatua. Probalekuan, 14:30ean.
- **DURANGO 'Cancún'** Banarte antzerki taldearen antzezlana. San Agustin kulturgunean, 19:00etan.
- **DURANGO Bisita gidatua** Udaletxea eta haren balio arkitektonikoa ezagutzeko bisita. Izena eman behar da. Udaletxean, 11:00etan.
- **ELORRIO 'Naturaren fabrika: hegaztiak behatzeko modu berri bat. Hegaztien migrazioa Urdaibain'** Berbaldia. Hizlaria: Edorta Unamuno (Urdaibai Bird Center). Iturri kultur etxean, 19:00etan.
- **GARAI Altxa Lili Kabareta** Landa eremuko identitate kuir eta euskaldunen kabareta. Trumoitte kultur elkarteak antolatuta. Igurtzi Serrano eta Signore Vincenzo drag artistekin bingoa, 17:30ean. Kabareta, 19:00etan. Musika jartzaileak, 21:30ean. Frontoian.
- **ZORNOTZA 'Anöa'** Elvi Balboak sortu eta zuzendutako dantza ikuskizuna. Zornotza Aretoan, 20:00etan.
- **ZORNOTZA Luis Urrengoetxea kaleko jaiak** Udabarri dantza taldea, Lopenan hasita, 12:00etan.
  Lehiaketan parte hartutako sukalkien aurkezpena, 14:30ean.
  Sari banaketa, 15:00etan.
  Elektrokutau Elektrotxaranga, Lopenan hasita, 18:00etan.
  La Txorra Records + Josetxu Piperrak, Zelaietako parkean, 21:30ean.
- **ZORNOTZA Bisita gidatua** 'Animaliategia' erakusketagaz lotutako jardunaldiak. Herriko Plazan, 15:30etik 17:30era. Berbaldia, Carmen Alvarez Tolagaz. Zelaieta Zentroan, 18:00etan.
- **ZORNOTZA Kultur asteburua** Etxanoko Andra Mari elkarteak antolatuta. Etxanoko Erraldoiak, 11:30ean. Josune Garcia de Bikuña ipuin kontalaria, eskolan, 12:00etan.
  Herri kirolak ume zein helduentzat, frontoian, 13:00etan.
  Bazkaria, 14:30ean (txartelak aldez aurretik salduko dira).
  Erromeria: Soinutxikie, frontoian, 17:30ean.
  Etxano auzoan.

DOMEKA 8

- **ABADIÑO Gure Zirkua** Zirkua. Zelaietan, 12:00etan eta 17:00etan.
- **ABADIÑO Añube** Kontzertua. Amaraun Arte Fabrikan, 13:00etan.
- **ABADIÑO Ekoizle eta sortzaileen azoka** 3. urteurrena ospatuko duen azoka girotzeko Axun eta Marikarmen aktoreak gonbidatu dituzte eta Sualai errementariak erakustaldia emango du; Eliasek piperrak erretzen jardungo du. Txanporta plazan, 10:30etik 14:00etara.
- **ABADIÑO 'Putaren bakarrizketa eroetxean'** Laura Penagasen bakarrizketa. Txanporta kultur etxean, 19:00etan.
- **DURANGO Dolmen Ensemble** Kontzertua, Durangoko XXXVII. Musika Hamabostaldiaren barruan. San Agustin kulturgunean, 19:00etan.
- **ELORRIO XXXV. Mikologia Erakusketa** Iturrizoro elkarteak antolatuta. Frontoian, 11:30ean.
- **ELORRIO 'Peter Pan y Wendy'** El Perro Azul Teatro konpainiaren antzezlana. Arriola antzokian, 17:00etan.
- **ZORNOTZA Luis Urrengoetxea kaleko jaiak** Gaztedi Barria fanfarrea. Euskal Herria enparantzan, 13:30ean. Lutaber errifaren zozketa, 15:00etan.

MARTITZENA 10

- **BERRIZ Sukaldaritza tailerra** Durangaldeko Berbalagunek antolatutako tailerra, Kepa Imaz sukaldariak gidatuko du. Izena emateko 639 400 786 telefono zenbakira deitu daiteke. Pedro Juan jatetxean, 18:00etan.

EGUENA 12

- **ABADIÑO 'Neguberria'** Ekaitz Herreraren liburuaren aurkezpena, Ainhoa Urienek gidatuta. Mediatekan, 17:30ean.
- **ABADIÑO 'Ongizate eta osasun komunitarioaren zikloa: Familia hezten'** Berbaldia. Errota kultur etxean, 18:00etan.
- **DURANGO Sukaldaritza tailerra** Arrazolako Amillena jatetxeko Lur Moraguesek eta Vanesa Calvok gidatuta. Merkatu berrian, 18:00etan.



METROKOADROKO

ZORNOTZA Antzerkia
Metrokoadroka Kolektiboak *Bi baso bat ur* obra aurkeztuko du gaur Zornotzan. Antzezlanak trauma osteko egoeran dantza egiteko ezintasuna islatzen du, eta alaitasuna zein umorea mina gainditzeko funtsezko tresnak direla azpimarratu. Zornotza Aretoan, azaroaren 6an, 20:00etan.

ZINEMA

BERRIZ

KULTUR ETXEAN

Mascotas al rescate
Domeka 8: 17:00.

DURANGO

ZUGAZA ZINEMA

Sacamantecas
Barikua 6: 18:00, 20:30.
Zapatua 7: 17:15, 18:45, 21:30.
Domeka 8: 17:15, 19:30.
Astelehena 9: 18:00, 20:15.
Martitzena 10: 18:00, 20:15.
Eguena 12: 19:00.
Ruega por nosotros
Barikua 6: 17:45, 20:30.
Zapatua 7: 18:45, 21:00.
Domeka 8: 19:00.
Astelehena 9: 18:30
Martitzena 10: 19:30.
Eguena 12: 19:00.
Los miserables
Barikua 6: 18:00.
Zapatua 7: 19:30.
Domeka 8: 19:00.
Astelehena 9: 18:00.
Martitzena 10: 18:00.
Eguena 12: 19:00.
La oveja Shaun. Misión Calabaza
Zapatua 7: 16:45.
Domeka 8: 17:00.
El misterio de Lucy Lost
Zapatua 7: 16:30.
Domeka 8: 17:00.



ELORRIO

ARRIOLA ANTZOKIA

24 Ordu Digitalean
Zapatua 7: 20:00.
Tiempo de ilusión
Domeka 8: 20:00.
Astelehena 9: 20:00.

ZORNOTZA

ZORNOTZA ARETOA

Arriba Tutto
Domeka 8: 20:00.
Astelehena 9: 20:15.
La isla olvidada
Domeka 8: 17:00.
Yo no moriré
Martitzena 10: 19:00.
El regalo + Empoderío
Eguena 12: 19:00.

"Garai batean, pilotarien praka zuriek Athleticen kamisetak baino ilusio handiagoa egiten zien umeei"

RICARDO INZUNZA ATUTXA CAFES BAQUE PILOTA TXAPELKETA

Gaur Mañarian jokatuko diren Cafés Baqué Pilota Txapelketako finaletan egongo da Inzunza. Orain 39 urte txapelketa sortu zutenetariko bat da



Ricardo Inzunza, Mañariko frontoiaren aurrean.

Joseba Derteano MAÑARIA

Mañariko pilotalekuak Cafés Baqué Pilota Txapelketaren 39. aldiko finalak hartuko ditu gaur, 18:30ean. Ricardo Inzunza (Mañaria, 1953) txapelketaren sortzaileetariko bat da eta sari banaketan parte hartuko du. Esku pilota barru-barrutik bizi du, bai profesionalena bai afizionatuena, eta kirol horren bilakaeraren lekuko izan da urte luzez.

Zelan sortu zenuten Cafés Baqué txapelketa?

Jesus Garcia-Ariñoren, Patxi Salterainen eta hiruron artean sortu genuen, 1986an. Abadiñon, Atxondon eta Mañarian jokatzen zen orduan, eta gerora Iurreta batu zen. Hirurok Bizkaiko Pilota Federazioan geunden eta Cafés Baqueko Txetxu Baquek proposatu zigun sortzea. Horrela hasi ginen eta txapelketak arrakasta handia izan zuen; txapelketarik inportanteena zen. Pilotaririk onenak etortzen ziren eta frontoiak bete egiten ziren. Herri askotako zaleak batzen ziren, ikusgarria zen. Patxi Eugik, Miguel Capellanek eta Oier Zearrak jokatu zuten, besteak beste.

Afizionatuetako pilotak indar handia zuen orduan.

Bai, eta pilota eskolek ere bai. 1980ko eta 90eko hamarkadetan, umeei praka zuriak jantzi eta frontoian aritzeak ilusio handiagoa egiten zien Athleticen kamiseta jantzi eta futbolean ibiltzeak baino. Mañarian ez zegoen gazte bat praka zuririk ez zeukana. Gerora, pilota indarra galtzen joan da.

Zergaitik izan daiteke?

Orduan, egunkari guztietako kazetariak etortzen ziren eta afizionatuetako pilotak orri asko betetzen zuen. Orain enteratu ere ez zara egiten herri arteko partiduak noiz diren. Komunikabideetatik arazo handi bat ikusten dut, eta instituzioen partetik ere bai. Begira zelan egon den zesta-punta, behea jota, eta begira zelan eman dioten buelta. Pilotak gora egin du Gipuzkoan eta Nafarroan, baina Bizkaian asko jaitsi da zaletasuna. Txapelketa kopurua ere bai. Mallabiko Biharko Izarrak indartsu dago, Zaldibarren Olazar dugu, berbagai dugun Cafés Baqué ere martxan da, Lezamako txapelketa, baina gutxi gehiago. Lehen, askoz gehiago zegoen.

90eko hamarkadan, afizionatuetan pilotariren batek bereziki deitu zuen zure arreta?

Pilotari bat azpimarratuko nuke: Pablo Berasaluze. Baina, afizionatuetan baino gehiago, gerora egin zuen bideagaitik. Umea zela, galdetzen zidaten zergaitik ez nuen Pablo hautatzen; bera baino hobeak zeudela esaten nien. Baina 18-19 urtegaz salto handia egin zuen, garapen itzela izan zuen, eta begira zelan nabarmendu zen profesionaletan. 90eko hamarkadan Bizkaian pilotari on asko zegoen afizionatuetan. Patxi Eugi ez zen haiek baino hobea. Baina gero, profesionaletarako saltoa ematerakoan, Eugik maila handia erakutsi zuen eta beste haiek bidean geratu ziren.

Pilota partidu asko ikusten duzu gaur egun?

Bizkaia frontoira ahal dudan guztietan joaten naiz. Gernikara ere joaten naiz, zesta-punta ikustera, eta pala ere gogoko dut. Dena gustatzen zait, baina batez ere esku pilota gustatzen zait. Afizionatuetako zenbat partidu ikusi dudan neuk ere ez dakit. Cafés Baqué txapelketakoak bakarrik kontuan hartuta, ehunka izango ziren. Munduko txapelketa ere jarraitu nuen.

Zelako ilusioa egin zizun Euskal Pilota Selekzioak ofizialtasuna lortzeak?

Itzela! Negar ere egin nuen, ilusioaren ilusioz. Murgiondok, Euskal Herriko federazioko lehenengo presidenteak, 1983an edo 1984an hauxe esan zidan: "Ofizialtasuna etorriko zaigu, eta denbora gutxi barru pilotariek txistu-danbolin doinuan desfilatuko dute". Begira zenbat urte joan diren harrezkero.

Hamarkada batez Bizkaiko Pilota Federazioan egon zinen, Bizkaia indartsu zebilen sasoian. Zein garaipen gogoratzen duzu bereziki?

Munduko txapelketagaz lotura duen bat kontatuko dizut. Oraindino Karmelo Ariznabarreta pilotari profesionala izanak gogoratzen dit ikusten dudan bakoitzean. Ameriketako Estatu Batuetan munduko txapelketa jokatu zen. Ni Bizkaiko hautatzailea nintzen orduan. Espainiako hautatzaileari galdetu nion ea Bizkaiko zenbat eramango zituen, eta igual baten bat eramango zuela esan zidan, baina ez zuela jokatuko. Bera nafarra zen eta nafarrak eraman zituen. Finala galdu egin zuten Frantziaren aurka. Handik hiru astera, Baionara joan ginen: Bizkaia Iparralderen aurka. Iparraldekoak Frantziagaz munduko txapeldun geratutakoak ziren. Guk Lejardi eta Bazeta eraman genituen binakakora, biak berriztarrak, eta buruz buru Ariznabarreta. Partidu biak irabazi genizkien. Kazetari batek deitu zidan emaitza jakiteko, eta ez zuen sinesten.

Gaztetan pilotari izandakoa zara?

Bai, herri artekoak-eta jokatu ditut. Ez naiz pilotari destakatua izan, inondik inora, baina afizio ikusgarria izan dut, inork baino handiagoa. Retegi II.ak ez zuen nik beste ordu sartuko frontoian! Horregaitik sortu nuen Mañariko esku pilota eskola.

Noiz izan zen?

1980 inguruan. Mañarian sekulako afizioa zegoen pilotan. Zer polita zen umeak praka zuriak jantzita frontoian ikustea. Orduan frontoi irekia zegoen. Partiduak jokatu behar zirela eta frontoia zikin zegoela? Umeek eskoba bana hartu eta frontoia garbitzen zuten. Euria zenean, Izurtzakora joaten ginen. Gaur egun edozein herritan sekulako azpiegiturak daude, frontoi ederrak, eta sarritan umeak futbolean ikusten ditut.

Jakingo zenuke bizitzen pilotarik barik?

Aipatu ere ez horrelakorik! Atzena litzateke. Pilota sakratua da. Jende asko etortzen zait txapelketei buruz galdezka eta gustura aritzen naiz.

Hiru txapel jokoan

Hileetako lehiaren ondoren, Mañariko finaletan hiru txapel egongo dira jokoan. Emakumeetan Aiala Uriartek eta Onintza Galdosek neurtuko dituzte indarrak. Mutilen kadete mailan Gotzon Erkiagaren eta Aiur Ugartemendiaren artean dago txapela. Gazte mailan eskualdeko pilotari bat izango da protagonista. Zornotzako Lagun Onak taldean dabilen Iskander Torralbak Aurrera taldeko Haritz Etxabe izango du aurkari.

ESKU PILOTA

Olazarren zuzeneko emankizunekin hasiko dira, Bikandi eta Bernaola protagonista direla

Azaroaren 12tik aurreko jardunaldiak 'anboto.org' atarian izango dira ikusgai

J.D. ZALDIBAR

Zaldibarko Etorkizuneko Olazar Pilota Txapelketa final-laurdenetan sartuko da datorren asteko eguenean, eta horregaz batera txapelketako antolatzaileek zuzeneko emankizunak hasiko dituzte. Abenduaren 31ra arteko jardunaldi guztiak *anboto.org* atarian ikusi ahal izango dira, eta baita Zaldibarko Udaleko youtube kanalean ere.

Zuzeneko emankizunean Haritz Gallastegi arituko dira esatari lanetan, eta Enrike Agirrebeitia komentarista. Antolatzaileek egindako saioek kalitatezko errealizazioa dute: hainbat kamera, errepikapenak, datuak, elkarrizketak...

Azaroaren 12an partidu bi egongo dira ikusgai, 21:30ean, eta bietan eskualdeko protagonistak daude. Lau eta erdian Koldo Bikandi iurretarrak Ibon Ibarra eibartarra izango du aurkari. Partidu parekatua aurreikusten da. Binaka, Aingeru Bernaola mañariarrak eta Egigurenek Lizeagaren eta Sotilen aurka jokatuko dute finalerdietara sailkatzeko asmoz. Kasu honetan bigarrenak izango dira faborito.



Elorz eta Lizeaga munduko txapelketako garaipena ospatzen. Olazarren jokatuko dute. EEPF

Munduko hiru txapeldun

Eskualdeko pilotariak ez dira txapelketaren arreta erakarriko duten pilotari bakarrak. Orain-tsu Argentinan eta Uruguain jokaturiko munduko txapelketan txapeldun izandako hiru pilotarik oraindino bizirik jarraitzen dute Olazarren. Euretariko bi Eñaut Lizeaga astigarragarra eta Oier Elorz zaratamarra dira. Biek elkarregaz binakako txapelketa irabazi zuten orain asteburu bi Argentinan Euskal Pilota Selekzioagaz. Hain zuzen ere, Lizeagak datorren eguenean jokatuko du Olazarren. Elorzen bikotekidea Beitia da txapelketa honetan.

Olazarreko kantxa zapalduko duen beste munduko txapelduna Jorge Fernandez da. Pilotari errioxarra buruz buruko txapeldun geratu zen Espainiako selekzioagaz eta urrezko domina kolkoratu zuen. Olazar txapelketan Apeztegiagaz osatuko du bikotea.

Gogoratu behar da finalerdietatik aurrera emakumeen txapelketa ere jokatuko dela, lau pilotarigaz.

ERRUGBIA

DRTk eskualdeko klubetara zabaldu du November kanpaina

J.D. DURANGALDEA

Hamargarren urtez, Durango Rugby Taldeak (DRT) November kanpaina bultzatuko du azaroan zehar Durangon eta Durangaldean. Prostatako eta barrabiletako minbiziaren inguruko kontzientziazioa bultzatzea da ekimenaren helburu nagusia.

Aurten, nobedade legez, eskualdeko beste kirol klub batzuetara zabaldu dute proposamena, herritar gehiagorengana heltzeko asmoz. Horrela, DRTgaz batera, beste zortzi kirol erakundek bat egin dute kanpainagaz: Ezkurdi Kirol Taldeak, Mendibeltz areto futbol taldeak, Abadiño Kirol Elkarteak, Durangoko Kulturala futbol klubak, Tabirako saskibaloi taldeak, Gu Lagunak areto futbol taldeak, Jai Alai zesta-punta klubak eta Mugarra Triatloi Taldeak.

Kamisetak atera dituzte kanpainarako dirua batzeko; 10 euroan daude salgai. Kamisetak Rugby Tabernan eskuratu daitezke. Horrez gainera, azaroaren 14an postu bat ipiniko dute Andra Mari inguruan, 12:00etatik 15:00etara. Eta azaroaren 21ean Arripausueta zelaian egongo dira, beteranoen eta talde inklusiboaren partiduetan.

FUTBOLA

Euskal Genuine taldeen topaketa Elorrion egingo dute, domekan

J.D. ELORRIO

Elorrio Genuine ligako euskal taldeen topaleku bihurtuko da domekan. Ekitaldia Eleizalde futbol zelaian izango da eta talde hauek arituko dira bertan: Deportivo Alavés Fundazioa, Athletic Club Fundazioa, SD Eibar Fundazioa eta Real Sociedad Fundazioa.

Sei partidu jokatuko dira guztira, zelai bitan banatuta. Lehenengo partiduak 11:00etan hasiko dira, eta azkenak 12:15ean.

Topaketak izaera ez-lehiakorra du eta ez da sailkapenik edo puntuaziorik egongo. Jardunaldiaren helburu nagusia da "gizarte eta kirol inklusioa zein parte hartzaileen arteko elkarbizitza sustatzea, aukera berdintasuna eta talde lana bultzatuta", antolatzaileek ohar batean azaldu dutenez.



Iazko topaketako irudi bat.

JOKALDIA



GOTZON GOMEZ BARRENETXEA
ERRUGBIA

Anbototik ere errugbia ikus daiteke

Zutabe honetan errugbia hizpide izaten badut ere, oraingo honetan fokua ospakizun batean jarriko dut, Anboto astekariaren ospakizunean, 25 urte betetzea ez delako kontu makala izaten. Hausnarketa txiki bat egiteko tartetxo bat hartuz gero, konturatu gaitezke Anbotok bere lehenengo urratsak egin zituenean, XXI. mendearen hasierako urteetan murgiltzen ginela.

Sasoi horretan Anboto jaio zen. Astekaria eta euskalduna, Erazen oinordekoa, eta mundu aldakor horretan oraindik paperezko bertsioan banatuko zena, eta zorionez gure sasoiko askorentzat, oraindik ere paperean banatzen dena. Testuinguru hori ikusirik, apustu sendoa eta ausarta egin zuen Anbotok. Barikuero eskualdeko etxeetara inguruko informazioa euskaraz helarazteko helburuarekin. Durango Rugby Taldean hasiera-hasieratik Anboto bidelagun izan dugu. Hainbeste estimatzen dugun kirola, lantzen dugun filosofia eta kirol mundua ulertzeko dugun modua zabaltzeko bozgorailua izan dugu Anboto astekaria. Hasierako urteetan partida zein antolatutako ekintzen berri ematen zuen, geroago harremana estutzen joan ginen, adituaren txokoa edo jokaldia zutabearen bidez, hor izan dugu gure txokoa 20 urtean, errugbia eta euskara uztartzeko eta sustatzeko aukera. Espazio itzela izan da errugbiaren inguruko ezagutza, balioak, bitxikeriak lau haizeetara zabaltzeko. Guztira, errugbiarekin zerikusia duten 75 kolaborazio inguru izan dira Anboton argitaratutakoak, lerro horien bitartez All Blacks nortzuk diren eta *haka* dantza zer den, jokoan epaileak duen garrantzia zein jokalariek erakusten dioten errespetua, txapelketa nagusien gorabeherak, errubiaren inguruko bitxikeriak, eskualdeko klubetako egunerokotasuna zein errugbi eskoletako garrantzia hobeto ezagutzeko erakusleihoa izan da Anboto astekaria.

Aurtengoa gurean ere urte berezia da, Durango Rugby Taldeak 40 urte betetzen baititu, baina horretaz ziurrenik aurrerago ere hitz egiteko aukera izango dugu, oraingo honetan garrantzitsuena Anboto astekariaren eta proiektu komunikatiboaren 25 urteak dira eta. Ospakizun hau ibilbide luzearen mugarria izan dadila, pilak kargatu, indartu eta urte askotan jarrai dezazuen eskualdeko berriak, proiektuak, jaiak, kirol ekintzak, arte ikuskizunak, pertsonen zein taldeen lorpenak eta bizipenak zabaltzen. Zuen presentzia derrigorrezkoa baita gure eskualdearen ikuspegi zabala eta hurbila izateko, eta, nola ez, gurea bezalako klubek ezinbestekoa duten presentzia eta ikusgarritasuna izan dezaten. Zorionak, Anboto, eta urte askotarako.

TXOKOTIK ZABALERA

UNAI GAZTELUMENDI

AITA TASUNA



GUARDIAKO BOTIKAK

AZAROAK 6, BARIKUA
09:00-09:00
Navarro, Artekalea 6 **- Durango**
Melero, San Pedro 31 **- Zornotza**

AZAROAK 7, ZAPATUA
09:00-09:00
Etxebarria, Montevideo etorb. 2. **- Durango**
Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 **- Zornotza**

AZAROAK 8, DOMEKA
09:00-09:00
Bazan, Uribarri 5 **- Durango**
Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 **- Zornotza**

AZAROAK 9, ASTELEHENA
09:00-09:00
De Diego, Intxaurrondo 22. **- Durango**
Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 **- Zornotza**

AZAROAK 10, MARTITZENA
09:00-09:00
Sagastizabal, Askatasun etorb. 19 **- Durango**
Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 **- Zornotza**

AZAROAK 11, EGUAZTENA
09:00-09:00
Mugica, Andra Maria 9 **- Durango**
Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 **- Zornotza**

AZAROAK 12, EGUENA
09:00-09:00
Balenciaga, Ezkurdi plaza 8 - Durango
Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 **- Zornotza**
Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 **- Abadiño**

24 orduz zabalik daueden farmaziak daude zerrendan.
22:00 arte zabalik daudenak ere ikusteko: www.anboto.org/botikak

ZORION AGURRAK



ABADIÑO
June Etxebarria
Azaroaren 5ean June Etxebarriak, Eibarreko futbol jokalaririk onenak, urteak egin ditu. Zorionak, txapeldun!



BERRIZ
Igor Rodriguez
Pinupe eta lagun guztixen partez, egun zoriontsua euki daizuela familia! Zorionak Igor! Etapa barrixe heldu da!

GOZATU GOZOTEGIA
Ermodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com
661 401 400
Gozatu Gozotegia
gozatugozotegia

Zorionak Hiru eta Unzalu (1080.alea)! Hamabostean behin zotz egiten dugun tarta zuri egokitu zaizu. Oparia eskuratzeko txartela gura duzunean jaso dezakezu lurretako gure egoitzan.

OROIGARRIA



Anboto eskelak:

ESKELAK JARTZEKO:
946 816 558 edo ***anboto@anboto.org***

Modulo bateko Oroigarria edo Esker ona Anboto Paperean edo webgunean: **75** € / Anboto kideendako **65** €

Bi modulotako Oroigarria edo Esker ona Anboto Paperean eta webgunean: **115** € / Anboto kideendako **105** €

Urte askotarako!

Zorion-agurra jartzeko, hiru bide:

- Anboto.org-en erabiltzailea sortu eta *Anboto.org/zorionagurrak* helbidean sartu zorion agurra.
- Mezua bidali *agenda@anboto.org* helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urteguna eta gura duzun testua.
- Etorrri zaitez Anbotoren ordezkaritzara edo deitu 946 232 523 telefonora.





INMOBILIARIAK

ETXETXO INMOBILIARIA
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 - DURANGO
www.inmoetxetxo.com

ETXEBIZITZAK SALGAI

TABIRA: 71 m2. 2 logela, komuna, sukaldea eta egongela. 16 m2-ko galeria. Trastelekua. C.E.E=F 170.000 €.

ALLUITZ: 82 m2. Estreinatzeko. 2 logela, komuna eta sukaldea. Balkoia. C.E.E=E 275.000 €.

IURRETA: Sukalde handia, egongela, 2 logela eta komuna. Balkoia. C.E.E=E 220.000 €.

ARTEKALEA: 80 m2. 2 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela balkoiarekin. C.E.E=E 229.000 €.

ABADIÑO: 142 m2. 4 logela eta 2 komun. Terraza. 40 m2-ko garaje itxia eta 80 m2-ko trastelekua. Aparkaleku pribatua. C.E.E=F 325.000 €.

TXIBITENA: 103 m2. 4 logela, 2 komun, sukaldea, eskegitokia eta egongela-jangela. Garajea eta ganbara. C.E.E=D 365.000 €.

MAÑARIA: 110 m2. 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. Ikuspegiak. C.E.E=E 250.000 €.

MUNTSARATZ Baserria. 670 m2. Familiabakarrekoa. 500 m2-ko lursailarekin. C.E.E=F 525.000 €.

GARAI 2.759 m2-ko lursaila. Lursail eraikigarria. 240.000 €.

ZORNOTZA: Bifamiliarra. 314 m2 etxebizitza bakoitzak. 7.650 m2-ko lursail pribatua. C.E.E=B 860.000 €.

LOKALAK SALGAI / ALOKAGAI

TRONPERRI: 35 m2. Diafanoa. Komuna. 35.000 €.

TXIBITENA: 44 m2-ko lokala. 44.000 €.

MURUETA TORRE 44 m2. Kearentzako irteera. 50.000 €.

KOMENTUKALEA: 58 m2. Egokitua. 54.000 €.

ASTARLOA: 57 m2. Lokala. 65.000 €.

ZABALE: 76 m2. Instalazio elektrikoarekin. Bi kaleetara sarrera. 66.000 €.

MATIENA Trañabarren. 60m2.Salgai. etxebizitza egiteko aukera. 70.000 €

SAN FRANZISKO: 84 m2-ko lokala. 75.000 €.

IURRETA (Bixente Kapanaga). 117m2. Lokala. 75.000 €.

MASPE 150m2. Lokala. 90.000 €.

ASKATASUN ETORBIDEA 60m2. Lokal egokitua. 125.000 €.

ALLUITZ Lokala. 70 m2. Egokitua. Erakuslehioa 2 kaletara. 110.000 €.

DURANGO 100m2. Lokala. Alde zaharrean. Egokitua. 115.000 €.

GARAJEAK SALGAI

SAN INAZIO: Garajea. 11.000 €

JUAN MARI ALTUNA: Garajea. Salgai. 12.000 €

MATIENA: Trañabarren. Salgai. 16.000 €.

ALLUITZ Garajea. Salgai, 15.000 €.

ASKATASUN ETORBIDEA Garaje itxia. 20.000 €.

MONAGOTORRE: Garajea. Erdigunean. 13.000 €.

PLATERUEN PLAZA: Garajea trastelekuarekin. 22.000 €.

AMBOTO INMOBILIARIA
Sanagustinalde, 4 - 1 ezk. - 48200 DURANGO

ETXEBIZITZAK SALGAI

DURANGO

ZUMALAKARREGI 235 m2. Durango erdigunean. Zoragarria.

MONTEBIDEO Berriztatzeko. 175m2, 6. soliaruan. Balkoia. 60 m2, 7. solairuan. Ikuspegi ederrak.

MONTEBIDEO 150 m2. 4 logela. Handia. 2 kotxerentzako garaje itxia.

FRAY JUAN DE ZUMARRAGA 180 m2. 4 logela, 2 komun, sukaldea, jangela eta egongela. 3 balkoi. Berriztatzeko.

FRANTZISKO IBARRA 3 logela, egongela balkoiarekin, komuna eta sukaldea. 100 m2-ko terraza handia.

GOIENKALEA 65 m2. 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Balkoia.

GOIENKALEA 2. solairua. Halla, 3 logela, sukaldea, 2 komun eta egongela. Bizitzen sartzeko moduan.

BARRENKALEA Logela bakarreko apartamentua. Sukaldea, egongela logela eta komuna. Trastelekua.

LURSAILAK SALGAI

URRUTXUA 9 hektareako 2 baso salgai. Errepidearen ondoan.

BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

IURRETA Fauste auzoa. Bifamiliarra. Ikuspegi ederrak. Leku onean kokatua. Prezio ezin hobea.

IURRETA Baserri erdia saltzen da San Markos auzoan. Teilatua berriztatua. Gainontzekoa berriztatzeko.

ABADIÑO Etxezurin kokatua. 300 m2. Berriztatzeko. Lursailarekin. Ganbara.

BERRIZ Andikona auzoa. Baserri ikusgarria, berriztatzeko. Teilatua eta estruktura eginda. Ikuspegi ederrak. 7 hektareako lursailagaz.

MAÑARIA 3 solairuko etxe ederra. Herri erdian. Udaletxe ondoan. 160m2 solairu bakoitzean. Aukera ederra Mañaria erdian bizitzeko.

BULEGOAK ALOKAIRUAN

ABADIÑO

30 m2-tik gorako bulegoak. 350 -tik hasita. Argia eta wifia barne.

DURANGO

ERMODO KALEAN 100 m2. 2 bulego alokairuan. Garajearekin.

LOKALAK ALOKAIRUAN

DURANGO Lekker taberna alokatzen da. 100 m2. 40 m2-ko jantokia, sukaldea, komunak. Zure negoziorako aproposa.

ALDE ZAHARREAN, hainbat tamainatako lokalak alokairuan. Etorri eta galdetu.

LOKAL INDUSTRIALA SALGAI

MATIENA 460m2-ko lokala salgai. Bulegoa, komuna eta aldagela. Oso egokia.

ELORRIO 600 m2-ko pabilioia salgai. Komunak, aldagelak eta bulegoa. Jantzia. Lanerako prest.

LOKAL INDUSTRIALA ALOKAGAI

BERRIZ

BERRIZ Eitua industrialdea. 600 m2-ko pabilioia. Bulegoa, komuna eta aldagela. Errepide ondoan. Leku onean kokatua.

ISD Inmobiliaria del Duranguesado
Askatasun etorb. 10 - DURANGO - 946 816 666
www.inmoduranguesado.com
inmoduranguesado@gmail.com



C. E. E.: Bidean. 229.000€.

DURANGO: ARTEKALEA: 77 m2. Egongela, sukalde jantzia, 2 logela eta 2 komun. Balkoia. Ezin hobea. Etxe erdiak kanpora ematen du. Erdigunean kokatua, zerbitzugunez inguratuta.



C. E. E.: E 410.000€.

DURANGO: TRONPERRI: 104,42m2. Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 2 logela eta 2 komun. 2 balkoi. Ur beroa eta berogailua gas naturalarekin dauka. Etxe erdiak kanpora ematen du. Etxebizitza altua eta argitsua. Erdigunean kokatua, zonalde berde eta zerbitzuguneetatik gertu. 47,30 m2-ko ganbara, estudio moduan egokituta eta etxebizitzarekin konektatua. 40 m2-ko garaje itxia.

C. E. E.: Bidean. 233.000 €

ATXONDO: JOSÉ ANTONIO AGUIRRE LEKUBE ETORBIDEA: 95,81 m2. Lehenengo solairua, 59,81 m2. Halla, egongela, sukaldea, 2 logela eta komuna. Balkoia. Bigarren solairua, 36 m2. Egongela, logela, komuna eta trastelekua. Egoera onean. Etxe osoak kanpora ematen du. Argitsua. Zonalde lasaia.



C. E. E.: E. 144.000€.

ELORRIO: ERREKA KALEA: 48m2. Egongela-jangela, logela eta komuna. Egoera onean. Gas naturala eta beirazko kristal bikoitzeko zurezko leihoak. Erdigunean.



16.000€ + BEZ.

MATIENA: TRAÑAERROTA: Garaje-partzelak lehenengo eta bigarren solairuan. Eraiki berri den eraikina. Salgai.

AGENCIA INMOBILIARIA
Fernando Uribe
Barrenkalea, 15 behea - DURANGO
Tel.: 946 816 423 - www.fernandouribe.es

BERRIAK

ABADIÑO

SAN PRUDENTZIO KALEA: 3 logela, sukaldea, egongela, komuna eta bainugela. 2 balkoi. Ganbara. Igogailua. 315.000 € / E.E.Z=G

DURANGO

ANDRA MARI: 3 logela, sukaldea, jangela, egongela eta 2 komun. 240.000 €/ E.E:Z=E

BARRENKALEA: Konpontzeko dagoen eraikina. Sotoa, behe-solairua eta 3 pisuko altuera. 350.000 € / E.E.Z=F

GOIENKALE KALEA: Logela, sukaldea egongelarekin eta komuna. Igogailua. 160.000 € / E.E.Z=F

SAN INAZIO AUZUNEA: 2 logela, sukalde-egongela eta 2 komun. Etxebizitza berria. 280.000 € / E.E.Z=A

ABADIÑO

DENDARIKOA: Zaharberritzeko dagoen eraikina. Beheko solairua eta 3 pisuko altuera. 215.000 €.

ATXONDO

ARTEKALEA, 13: Konpontzeko baserria lursailarekin. 300.000 €.

BERRIZ

BIDEGAIN KALEA: Duplexa. 3 logela, sukaldea, 2 egongela eta 3 komun. Terraza. Igogailua. 2 garaje eta trastelekua. 450.000 €/ E.E.Z=Bidean

MURGOITIO AUZOA: Berreraikitzeko baserria lurzoruagaz. LEHEN 280.000 € / ORAIN 250.000 €.

BERRIZ

ZENGOTITABENGOA KALEA: 4 logela, sukaldea eskegitokiarekin, egongela eta 2 komun. Igogailua. Garajea eta trastelekua. E.E.Z=Bidean. LEHEN 318.000 € / ORAIN 310.000 €.

GARAJEAK SALGAI / ALOKATZEKO

DURANGO

ALLUITZ KALEA: Garaje itxia. 75 € / hilean.

ANTSO EZTEGIZ: Garajea. 45 € / hilean. Motorrentzat egokia.

MADALENOSTE: Garaje itxia eta trastelekua. 42.000 €.

MONTEBIDEO ETORBIDEA: Garaje itxia. 23.000 €.

TRONPERRI KALEA: Garajea. 70 € / hilean.

LOKALAK ETA PABILIOIAK SALGAI / ALOKATZEKO

DURANGO

ANDRA MARI KALEA: 76 m2-ko lokala. Salgai: 90.000 € / Alokagai: 800 € hilean / E.E:Z=E

ANDRA MARI KALEA: 62 m2-ko lokala. 850 € / hilean / E.E.Z=Bidean.

ARKOTXA KALEA: 122 m2-ko lokala. 900 € / hilean. E.E.Z=Bldean.

IBAIZABAL AUZUNEA: 60 m2-ko lokala. LEHEN 240.000 € / ORAIN 198.000 € E.E.Z=E

KALEBARRIA: 82 m2-ko. 92.390 € / E.E.Z=E

KOMENTU KALEA: 75 m2. Lokala. 900 € / hilean.E.E.Z=E

ABADIÑO

SAN ANDRES KALEA: 11 m2-ko lokala. 40.000 € / E.E.Z=bidean.

ALIENDALDE: 285 m2-ko pabilioia. LEHEN 250.000€ / ORAIN 210.000 €

BERRIZ

EITUA: 500 m2-ko pabilioia. 570.000 €.

PEFC ziurtagiria
Produktu hau kontrolatutako iturrietako materialez egina dago, birziklatua da eta Baso Kudeaketa Iraunkorraren ziurtagiria dauka
www.pefc.es

LAU-HORTZA

Badira izan 25



JASONE AGIRRE GARITAONANDIA

Pinondon eginiko batzar hura, denok batuko gintuen izena aukeratu genuenekoa, edota atzetik etorri ziren beste guztiak. Durangaldea, batu, sendotu.

Lantaldea sortu, osatu, ibilian hasi. Dirua, laguntzak, soldatak, publizitatea. Ekin, egin, landu.

Informatu, entretenitu, pertsonak ezagutu. Gertutasuna, konfiantza, egiteko era. Lehen aleko argazkia, sutondoa, etxeko bata. Zuri-beltza. Banatu, etxean jaso. Astero. Sasoi berriak, lagun berriak. Kolorea, kalitatea. Idatzitako zutabeak, irakurritakoak, amari eskainitakoa.

Barikuero noiz helduko zain, goitik behera irakurtzeko gosez egoten zen Natalia, gazterik, gazteegi joan zena. Minak, pozak.

Hor ekinean astero-astero, egunero, uneoro, egon izan direnak, daudenak, eta egongo direnak. Bertatik bertara eta beti aurrera, indarraz, inteligentziaz. Kideak, lagunak.

Urteetan egindako lana goresten dutenak, baina baita kritikatzen dutenak ere. Zer ikasi, zer ibili, beti dago zereginik. Bidea.

Herritik sortua eta herriarentzat, eta beti euskaraz. Bihotza eta burua.

Horixe dena da niretzat, baina askoz gehiago ere bada, norberarena delako eta inorena ez delako.

Dagoeneko urte asko dira, edo agian ez dira hainbeste.

Anboto, geure Anboto. 25 urte geure bizitzaren parte.

Zorionak danoi!

AKUILUA

"Mallabian dauden ibilbideekin hasi gura dugu, herriko mendi eta txokoak ezagututa"

JUAN CARLOS PEREZ VILLIMBRALES ETA KOLDO ZABALA HUIZI MALLABIKO MENDIZALEAK

A. Basauri MALLABIA

Juan Carlos Perezek (Eibar, 1961) lotura estua du Mallabia futbol taldeagaz. Koldo Zabala (Donostia, 1972) frontoiko arduraduna da orain hiru urtetik hona. Biek partekatzen dute mendiagazko zaletasuna, eta horrek bultzatuta, Mallabiko Mendizaleak taldea sortu zuten uztailean. Argi dute helburua: Mallabiak gordetzen dituen altxorrak ezagutzea eta mendiaz gozatzea. Hilean bi-hiru irteera antolatzen dituzte. Hurrengo irteera domekan egingo dute, Mendibilera eta Mendiganera.



Juan Carlos Perez eta Koldo Zabala.

Zelan sortu zen Mallabiko Mendizaleak taldea?

Koldo Zabala: Herriko frontoia eta gimnasioa kudeatzen ditut, eta kirol eskaintza berri bat eskaini gura nuen. Oso gustuko dut mendia, eta Juan Carlosegaz hartu-emana banuenez, talde bat sortzea proposatu nion. Nik ez, baina berak Mallabiko hainbat ibilbide ezagutzen du, eta hilean behin irteera bat antolatu genezakeela pentsatu nuen.

Juan Carlos Perez: Hala da. Orain urte bi erretiratu nintzenean, Ermuko Atarri mendi taldera batu nintzen. Eta denboratxo batera, Mallabian hainbat ibilbide egiten hasi nintzen, neure kabuz. Benetako paradisua da mendi-ibiliak egiteko. Bada, oso erraz ipini ginen ados, eta elkarregaz ibilbide batzuk antolatzen hasi ginen. Bitxia da, baina mallabitar askok ez dituzte ezagutzen herrian dauden leku asko. Eta badaude batzuk benetan zoragarriak direnak.

Beraz, Mallabiko altxorrak ezagutzeko aukera ematea da helburua.

J.C.P: Bai. Egia esanda, antolatu genuen lehenengo ibilaldia Deba-Zumaia izan zen; jende asko animatu zen, gainera. Hala ere, herrian bertan dauden ibilbideekin hastea da asmoa, Mallabiko mendi eta txokoak ezagutzea. Geroago, inguruko herri eta mendietara zabalduko ditugu irteerak.

K.Z.: Behin Mallabia ezagututa, gainonerako herriak konkistatuko ditugu.

Motzean

Mallabiko txoko bat?
K.Z.: Arietzuko pagadia.
J.C.P.: Gereako ur-jauziak.
Mendi bat?
K.Z.: Auñamendi.
J.C.P.: Hiru Erregeen Mahaia.
Zer da mendia?
Biak: Lasaitasuna.
Mendian beharrezkoa da...
K.Z.: Gogoa.
J.C.P.: Jarrera baikorra eta ura jakina.

Zuena ez da mendi elkartea.

K.Z.: Ez. Guk ibilaldiak proposatzen ditugu. Karteletan ezaugarriak, desnibel maila, kilometroak... zehazten ditugu. Parte hartu gura duenak 669 028 718 whatsapp telefono zenbakian eman dezake izena.

J.C.P.: Hilean behin umeekin familian joateko irteera bat antolatzen dugu. Eurentzat jolasak eta erronkak prestatzen ditugu. Umeen artean mendizaletasuna bultzatzea garrantzitsua dela deritzogu. Dena dela, prestatutako ibilbidea luzatzeko aukera ere eskaintzen dugu, umeekin ez doazenei begira. Orain, neguan, etentxo bat egingo dugu.

Pozik zaudete izandako harreragaz?

J.C.P.: Oso pozik! 20 bat lagun elkartzen gara normalean. Eta Gereako ur-jauzietara egindako irteerara 43 lagun animatu ziren.

K.Z.: Espero baino jende gehiago animatu da eta pozik gaude.

Mallabitarrentzako taldea da?

J.C.P.: Ez. Etorri gura duenari zabalik dago. Ez da federatu behar, eta izena ematea doan da.

Orain 35 urte, Arietzu mendi taldea sortu zen eta orain urte batzuk desagertu. Testigua hartu duzue?

J.C.P.: Neurri batean baietz esan liteke. Arietzu mendi taldea sortu zutenetariko batzuk Mallabiko Mendizaleak taldekoak dira. Orduango umeak guk antolatzen ditugun irteeretara animatu diren helduak dira.

Beti izan duzue zaletasuna?

J.C.P.: Areto futbolagaz izan dut lotura beti, baina pandemia garaian konturatu nintzen ibilaldiak egiteko aukera asko zegoela Mallabian. Orduan hasi nintzen ibiltzen eta mendia ezagutzen.

K.Z.: Beti gustatu zait, gurasoekin ere asko joaten ginen. Gero, bizikletan hasi nintzen eta biak uztartu ditut.

